

# Karkara

*karkara.eus*

 Orioko eta Aiako aldizkaria · 2019ko abuztuaren 30a · 408. zenbakia



## Hiru hamarkada, hamabost ontzi gutxiago

Herriko arrantza sektoreak bizi izan duen gainbeheraren berri eman du herriko hainbat eragilek.



# Denontzat Hizkuntza Eskola, Orion

- Tituludun eta esperientziadun irakasleekin
- Eta zure helburuetara egokitzen diren ikastaroekin

Gure Itzulpen Agentzian hizkuntza konbinazio desberdinen itzulpena eta kokapena kudeatzen ditugu: testu teknikoak, kalitate-eskuliburuak, enpresen idatziak, webguneak, softwarea, aplikazioak, iragarkiak eta askoz gehiago...



## NARAU Hizkuntza Eskolan...

- Bost urtetik aurrerako haurrentzako eskolak ditugu. Baita gazte eta helduenzat ere.
- Ingelesa, frantsesa, alemana eta japoniera erakusten ditugu.
- Gure taldeak txikiak dira.
- Zure beharretara egokitutako banakako ikastaroak ere eskaintzen ditugu.
- Oporraldian ikastaro trinkoak ere baditugu.
- Ingelesa gainditzea amesgaiztoa bihurku ez dadin, errefortzu eskolak eskaintzen ditugu.
- Enpresekin eta erakundeekin lan egiten dugu.
- Azterketa Ofizialak prestatzen lagunduko dizugu.
- Cambridge azterketak prestatzeko baimendutako zentroa gara (Starters, Movers, Flyers, KET, PET, First, Advanced, IELTS).

**MATRIKULAZIO  
EPEA IREKITA DAGO  
2019-2020  
IKASTAROA**

**Informa zaitez!**

Eusko Gudari 29  
20810 Orio (GIPUZKOA)  
 943 831 116  
 648 976 470  
 [info@narau-school.com](mailto:info@narau-school.com)

[www.narau-school.com](http://www.narau-school.com)

**Ikastaroaren hasiera 2019ko  
irailaren 16an izango da**

Tel. 943 13 00 77 - Fax 943 53 71 50  
[sagasti@sagastileihoak.com](mailto:sagasti@sagastileihoak.com)  
Eusko Gudari, 7  
20810 Orio

Roberto Sagasti

**Kalitazteko materialak  
PVC eta aluminioa · Isolamendu termiko eta akustikoa  
Salmenta osteko zerbitzua**

[www.sagastileihoak.com](http://www.sagastileihoak.com)

ATEAK  
ZOKALOK  
ARMAIRUAK NEURRIRA  
LEIHOAK  
ESKAILERAK  
ARROZTEGIA OROKORREAN

687 683 427   
[josebaarotza@gmail.com](mailto:josebaarotza@gmail.com)

**IZARRA ELEKTROGAILUAK**

**ESKOLARA BUELTA**

USB 16 GB **7€** aurrera  
Kingston 16GB **7€** aurrera  
LENOVO Mod. V45-15AST 4RAM/ 500GB Celoron N3550 **299€**

Eusko Gudari, 44 · Telf. 943 38 81 · 20810 Orio (Gipuzkoa)  
[izarraelectrodomesticos@gmail.com](mailto:izarraelectrodomesticos@gmail.com)

**INDO**  
Garraio frigorifikoa  
NAZIONALA ETA NAZIOARTEKOA

**Ubegun industriagune, 4**  
Tel. 943 894 024  
Fax. 943 130 144  
20809 AIA - ORIO



408

# Karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria

Soreasu z/g  
20730 Azpeitia

943 83 15 27

karkara@karkara.com

www.karkara.com

**Editorea**Urolako Komunikazio  
Taldea Koop. Elk.**Erredaktore burua**

Ainara Lasa

**Erredakzio taldea**Onintza Aiestaran  
Dorleta Agiriano  
Iñigo Exposito  
Iñigo Gaiton  
Miriam Garcia  
Jon Garate  
Aiora Larrañaga  
Elizabete Manterola  
Intza Unanue  
Rikardo Uzkudun**Publizitatea**

Sonia Albizu

**Ale honetako****kolaboratzaileak**Egoitz Dorronsoro  
Iñigo Gaiton  
Leire Zinkunegi  
Pat Cowie  
Ainara Peña  
J. Luis San Sebastian**Diseinua**

Saioa Perona

**Banatzaileak**Endika Ruiz (Orio)  
Eli Irureta (Aia)**Inprimategia**Gertu Koop. E. (Oñati)  
Lege gordailua SS-346/90  
ISSN 1132-1105  
Tirada 3.450 aleKARKARAK ez du bere gain har-  
tzen aldizkarian adierazitako  
esanen edota iritzien erantzukizun-  
kizunik. Karkaran argitaratuta-  
koa berreman daiteke, osorik  
edo zatika, baldin eta iturria  
aipatzen bada**TOKIKOM****LAGUNTZAILEAK:**

Aiako Udala



Orioko Udala

Gipuzkoako  
Foru Aldundia

Hasi bertsotan atalean puntuka arituko dira bertsolariak. Oraingoan Asier Gozategiri jarri dio puntua Pello Saizarrek: *Norabide onetik al ziak soinua?* Hurrengoari ere jarri dio puntua.

## PUNTUA JARRITA

**ASIER GOZATEGI** (DOINUA: ANTTON ETA MARIA)**1****Norabide onetik  
al ziak soinua?**Tripan bera baziak  
badik tamaña,  
bistan dira sintomak  
bistan da keña.  
Sudurrean aroma  
belarrin doña,  
puzkarra zintzoa da  
putza engaña.**2**Zer esan nahi huan ta  
zer ulertu dudan,  
oraintxe konturatu  
ta jarri nauk dudan  
agian beste soinu  
klase bat nahi huan  
izan ere iparra  
galtzen diat udan  
nahiko lan badit eta  
galdetu neguan**3**Soinuak eta biok  
daukagun harreman  
eder honek sartzen nau  
hainbestetan teman.  
Uztarran lotuta  
festaz festa deman.  
Maitasuna jaso ta  
maitasuna eman,  
ze zorionsu naizen  
ez alde atzeman.**Hurrengo bertsolaria:**

Ibon Arruti (Aldape)

**Puntua:**Udaletxetik balkoira irten  
ta bandera astintzean.**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

## Aiako jaien berezitasunak

Aurtengo herriko jaiak ere igaro dira. Donostiako Aste Nagusia – besteak beste – datorren seinale. Eta uda aurrera dijola ere bai.

Beste herri guztietakoak bezala, Aiako jaiak ere nolabaiteko berezitasunak badituzte, beste herrietakoetatik desberdintzen dituztenak. Nire ustez Aiako jaiak gehien ezaugarritzen dituena, aspalditik herriko gazteek antolatzen dituztela, edo antolakuntzan Udalarekin batera lan egiten dutela da. Eta gazteak denak elkarrekin egiten dutela lan, inongo influentzi edo alderdikeri edo zatiketarik gabe. Eta dena hutsaren truk, debalde, edo askotan dirua norberaren poltsikotik gastatuz. Norbaitek esango luken bezala, ordainduta edonork egiten du lan; dohainik egiteak du meritua. Eta egia esan, askotan horrek ematen du gustorik handiena.

Jaien antolakuntza modu honen hasiera aspaldikoa da eta seguru aski ez dugu behar aina errekonozitzen. Gaur egungo jaien antolakuntza sana, haiek egindako lanaren ondorioa da zalantzarik gabe. Ez ziren hurrun ibiliko hasiera haietatik Anttonio, Jose Luis, Ixabel, Josune eta beste hainbat. Ez dugu datu gehiago emango baina, hau irakurtzen badute, berehala konturatuko dira beraietaz ari naizela.

Horrez gain, beste ospakizunak badira jai hauek bakarrak egiten dituztenak: Zaharren eguna, umeen eguna –zenbat haur eta gazte elkartzen da egun horretan...–, kalejirak, antzerkia... eta denen gainetik, antolatzea hain zaila den *karroza*. Zein erraza ematen duen ikuslearen ikuspuntutik eta zein zaila antolatzea, ideia on bat pentsatzea... Oraindik ez dakit zergatik deitzen zaion *karroza*. Edo bai. Seguru aski, garai batean denok ezagutzen genuen Santik eman ziolako hasera bere tratore zaharra *karroza* bezala prestatuta. Hari ere

## Gutunerako oharra

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARARA bidali daitezke posta elektronikoz honako helbidera: karkara@karkara.com edo erredakziora eskura ekarri – Orioko edo Aiako Kultur Etxean – edo postaz bidali. KARKARAK ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin argitaratuko dugu; baina, beti, guk egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta pertsona horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, KARKARAK esan egingo dio.

KARKARAK bere egiten du eskutitzak laburtzeko eskubidea.

eman beharko genizkioke eskerrak, lehen aipatutako gazte –gazte, garai hartan– talde hari bezalaxe.

Aian, 2019ko Ekainaren 29an.

• **M.Uria**

## Zorionak!

Oriotarrok ikaragarri gozaten dugu gure arraunlariek, neskek zein mutilek, irabazten dutenean. Harrera bero bezain sentikor batean txaloak eurei eskaintzea gustatzen zaigu horrelakoetan baina, esan beharra dut, uda sasoiaren astebururo txaloak entzuten dituztenean, neguan egin duten lan ikaragarriari esker izan direla.

Beraz, beste txalo zaparrada bat beraietaz, negu gordinean, inork ikusi ez dituen gimnasio saio guzti horiegatik.

Bada hor nonbait, arraunlarien neguko jarduna bezala, ikusezin bihurtzen den direktibakoen lana. Arraunlari- direktiba binomioan, Orioko herriaren mesedetan, batak bestea gabe ez lukete lortuko trainerua uretaratzea.

Beraz zorionik beroenak eta txalorik ozenenak arraunlariei, baina baita direktiba eta beren inguruan, musutruk, laguntzen dabiltzan guztiei.

• **Antonio Campos**

## Suizidioaren gaia jorratzen

Denboraldi bat daramagu Mandalara elkartearen heriotzaren gaia ardatz hartuta puntu desberdinak lantzen eta nola ez, suizidioaren gaia ere argitara azaldu nahi dugu.

Ez da gai xamurra, inondik inora ere, baina suizidioaren inguruan hitz egitea interesgarria eta beharrezkoa dela deritzogu. Estatistikiten datuak benetan beldurgarriak dira.

Gai hau jorratzeko, Agustin Erkizia eta Eva Bilbao –Biziraun elkarteko sortzaileak– etorriko dira Oriora. Beren seme gaztea galdu zuten buruaz beste eginda, beraz, lehen eskutik bizi dute gaia.

Hitzaldia Salatxo aretoan izango da irailaren 18an, asteazkenarekin, arratsaldeko 19:00tatik aurrera, doan.

Ongi etorriak izango zarete.

• **Amaia Gozategi. Mandalarako Idazkaria.**

## Rugby-a Orio eta Aiako gaztetxoentzat

Jakinazten dizuegu, abuztuak 31, larunbatarekin, 10:30ean, Zarauzko Asti Rugby zelaian, ate irekien ihardunaldiak antolatu ditugula, Sub10, Sub12 eta Sub14 adineko gaztetxoei zuzenduta eta ohar honen bitartez Aiako eta Orioko gaztetxoei gonbidatzen zaituztegu Rugbya ezagutzera etorri zaitezten, Zarauzko Rugby Eskolaren eskutik.

Aurrerago luzatuko zaizue entrenamentuen eguna, ordua eta zelaia (Astin edota Oriokon).

Zatozte lagunak!!!

• **Zarauzko Rugby Eskola**

## Aintzatespen keinu bat zuretzako

Ez dakit nola duzun izena, baina aspalditik erreparatu nizun.

Neguko egun eguzkitsu bat gogoratzen dut. Hotza egiten zuen, baina eguzki goxoa zegoen, izar

baten marrakia duen baldosaren gainean zeunden zu.

Etxeko ataria zaintzen duen txakurraren tankera hartu dizut gaur, hortxe, posta-bulegoaren ate ondoan. Gero jakin dut altan dagoen txakur eme bat *zaintz*enduzula. Ikaragarri gustatu zait irudia: elegante, zure damaren zain.

Ez duzu jaberik, baizik eta lagun bat, eta doan lekura doala jarraitzen diozu.

Ez dio inporta trena galtzen baduzu; hor jarraituko duzu hurrengo trena etorri zain. Barrura sartu eta zure lagunarekin bilduko zara, presarik gabe, etxean dela dakienaren segurtasunaz.

Inbidia ematen didate ibiltzean dituzun lasaitasun eta segurtasun aura horiek.

Pauso irmoz ibiltzen zara, zure hanka motzekin, eta zain geratzen zara zebra bidean, inor molestatu gabe, inori zaunkarik egin gabe. Zure lagunari jarraitu, besterik ez duzu egiten.

Ez zara lotuta joaten. Izan ere, zibilizatua izatea zer den ondo erakusten duzu. Ai, gizakiok zure eredia jarraituko bagenu!

Bakarrik ikusten bazaitut egunen batean, trena galdu duzula pentsatuko dut, baina ez dago kuidadorik, ezagutzen duzu etxerako bidea eta bilduko zara zure lagunarekin.

P.D. ez dut argazkirik gehituko zu babesteko. Denbora luzez ibiltzen jarraitzea espero dut, hala, nik ere gozatzen segiko dut zu ikustean.

• **Miren Sarasua**

## Agur eta hurrengora arte!

Badira lau urte KARKARA taldeko kide naizela eta oso gustora gainera.

Oraingo honetan, ordea, agur esatera nator.

Mila esker guztioi. Oso gustora egon naiz lanean urte guzti hauetan eta gaizki ulertuak eta eginak ez dira nire memorian geratzen, baizik eta ondo eginak eta momentu onak bakarrik.

Ederki portatu zarete nirekin, baina, nire bizitzako etapa berri bati hasiera ematera noa. Mila mila esker esanez agurtzen naiz.

• **Sonia Albizu. Publizitate Arduraduna**

### JAIOTAKOAK

- Haitz Garmendia Uranga, Orion, maiatzaren 21ean.
- Beñat Heras Urkizu, Orion, uztailaren 3an.
- Xabat Diez Prieto, Orion, abuztuaren 5an.
- Nere Solaberrieta Arruabarrena, Orion, abuztuaren 12an.

### HILDAKOAK

- Felisa Arruti Lertxundi, Orion, uztailaren 2an. 94 urte.
- Javier Ostolaza Arkauz, Orion, uztailaren 10ean. 65 urte.
- Antonio Mitxelena Azkue, Orion, uztailaren 15ean. 90 urte.
- Teresa Solaberrieta Urdangarin, Orion, uztailaren 15ean. 85 urte.
- Jose Antonio Lizaso Manterola, Orion, abuztuaren 2an. 87 urte.
- Jose Añorga Aranburu, Aian, abuztuaren 8an. 88 urte.
- Enrique Perez Zurro, Orion, abuztuaren 15ean. 85 urte.
- Ignacia Zubizarreta Unanue, Orion, abuztuaren 19an. 93 urte.


Eskela edo urteurreneko gogoan-garria KARKARAN jarri nahi baduzu, deitu gure telefonora:  
**943 83 15 27**

 **KARELA KIROLDEGIA**  
IKASTAROAK 2019-20

**Berrito hasteko unea iritsi da!**

Ikastaroak, Xpress jarduerak, Kirol aholkularitza, Jarduera bereziak...  
Ezagutu zerbitzu eskaintza osoa kiroldegiko harreran.

**KARELA** Erriberak 1, 20810 Orio · 943 894 428 · orio@bpxport.es



**ROSANA**  
-ARGAZKI ESTUDIOA-  
fotorosanaarruti@gmail.com  
tel: 943 83 58 45



Uda honetako errezibimenduetako bat. KARKARA



Txupinazoa Aian. KARKARA



Txu-txu tren martxan da berriz ere. KARKARA

# Erruz bai, erraz ez

“Hamar urtetako lana neskena, neguko egokitzapen isila A-koena, harrokeria gabeko talde lana B-koena.”

**S**anpedroak udal korporazio berriarekin eta arraun gosez agurtu genituen; tankera ona hartzen hasia zegoen ordurako denboraldia, baina halakorik!

Galiziatik Hondarribiraino jaun eta jabe izan dira Orio Arraunketa Elkarteko arraunlariak. Pozez kabitu ezinik ibili garela esatea gutxitxo ere bada, asteburua joan asteburua etorri, etxera banderak iritsi direnean. Pozak, harrotasunak, lasaitasunak, esker onak, konfiantzak.... bat egin dute igandero herriko plazan, errezibimenduetan. Banderak, atuna bezala, erruz lortu dira, baina ez erraz. Hamar urtetako lana neskena, neguko egokitzapen isila A-koena, harrokeriarik gabeko talde lana B-koena. Horiek guztiak daude banderen atzean, eta zuzendaritzaren etenik gabeko lana. Ikuskizun dago zer pasako den, hauteskunde berri batzuk ditugu atarian. Hemen dena tren bezala doa, gauza bat izan ezik: Txu-txua! Gaixoak aberia eta otxokuarto dezente izan ditu aurtengo udaran.

Sandonatoak eta sanlorentzoak ere pasa ziren Aian, iazko buruhandien ezkontzak eman zuen fruitua, eta aurtan seme buruhandi beltza azaldu da balkoira. Beti bezala, bertso, antzerki, pilota eta herri kirol jaialdiak arrakastatsuak izan dira, giro ona izan da orokorrean, eta jendetza gazteen egunean.

Ea ba, tostartean aiarrak ia oriotarrak bezainbeste diren honetan, Euskotren ligaz gain trapu zuriren bat irabazten duten. Gozatu ederra hartuko dugu Aia-Orio geltokikook. Errio bazterreko zirkuan bezala, ondo pasatzen ari gara.

# Nola biziko dituzu aurtengo Kontxako Estropadak?



“Donostiara joango naiz estropadak ikustera”

**A**urten Donostiara joango naiz Kontxako traineru estropadak ikustera, lagun batzuekin. Denboraldiko estropada guztiak ikusi eta jarraitu ditut, eta ikusiko dugu ea orain Kontxan zer gertatzen den. Nik badut itxaropena Oriok banderak irabaziko dituen, taldeek denboraldi nahiko ona egin dutelakoan nago.

Orioko neskek irabazi egingo dutela uste dut, eta ea gizonezkoek ere lortzen duten, ilusio hori badut behintzat. Azkenengo estropada irabazi zuten, beraz, ea Kontxan ere hala gertatzen den.

**Itziar Garmendia**

“Kontxa irabaziz gero, ezin gehiago eskatu”

**O**raindik ez dakit etxetik edo bertatik biziko ditudan Kontxako aurtengo estropadak, zalantzak ditut. Kanpoan izan naiz udan, baina hala ere, denboraldia jarraitzeko aukera izan dut. Ikaragarria ari da izaten aurtengo sasoa, nik ez dut sekula halakorik ezagutu. Agian aspaldi bai, izan dezaket hainbeste garaipen eskuratu izanaren oroitzapen lausoa, baina aurtengoa sekulakoa izan da.

Ea Oriok Kontxako Bandera ere irabazten duen. Berriz garaipena lortuz gero, ezin gehiago eskatu.

**Santos Uranga**

“Oriotarrok ez dugu itxaropena galtzen”

**A**gian zirrara pixka bat sentituko dut aurtengo Kontxako Estropadetan, baina orokorrean, uste dut normaltasunez biziko ditudala. Amaitzear den denboraldia jarraitu dut, eta esango nuke Kontxan dena irabaziko duela Oriok.

Badirudi estatistikak ateratzeko lanetan aritu direla hainbat aurkari, eta horien arabera, parekatuta izango direla Orioko eta Ondarruko taldeak Kontxan. Dena den, oriotarrok ez dugu sekula itxaropena galtzen, eta irabazi egingo dugulakoan nago.

**Santi Ibirriaga**

# *Erotikaren produktibitatea*



Egoitz Dorronsoro

***Harreman sexualak salerosketa gisara eraikitzen ditugu, azkarrak eta seguruak izan behar dutelarik.***

Azken idatzi da sistema kapitalistaren produktibitate ereduaren inguruan. Jakina da, gizartean eta heziketan sustraitua dagoen filosofia bat dela. Ondorioz, ikuspegi horretatik baloratzen eta eraikitzen ditugu gure erabaki eta ametsak. Erotika zerbait bada, erabaki eta ametsen arteko jolasa da, baina, jolas honetan ere, kapitalismoak jarri dizkigu arauak.

Egun osoan produktibo izan behar dugu. Etekina atera behar diogu guztiari, emaitzak ikusi eta, nola ez, ukitu behar dira. Kuantitatiboa izan behar du denak, hau da, zenbatzeko gai izan behar dugu. Ezin dugu bizitza bizitzen egon, ezin gara egon, hori ezin daitekeelako kuantifikatu. Emaitza, emaitza da garrantzitsuena, zer eta zenbat. Hori da gure bizitzaren algoritmoa. Zygmunt Bauman soziologoak zioen gisan, *Kontsumoaren gizartean inor ezin da subjektu bilakatu ezin badu lehenago produktu izan.*

Ondorioz, kapitalismoa erotikaren aurkaria da. Azken honetan, ametsak, desirak eta pasioak kudeatzen baitira, esku artean ez dagoena, falta den zerbait,

alegia. Kapitalismoak, ordea, ez du lekurik ez dagoen zerbaitentzat, espazio edo denbora oro merkantziaz bete behar baita.

Honenbestez, harreman sexualak salerosketa gisara eraikitzen ditugu, azkarrak eta seguruak izan behar dutelarik.

Ezin dugu ahaztu, hau guztia heteroarauen barruan kokatu behar dela. Ondorioz, harreman heteroak hobetsiz, erabat koitozentrikoa den erotika honetan bestelako praktikak alboratu eta epaitzen dira. Larrua jotzea da balio duena, beste guztia horretara iristeko tresna izaki. Beraz, larrua zenbat eta zenbatekin jotzen dugun eta orgasmora iritsi garen da garrantzitsuena. Bestelako praktika erotikoei muzin egitearekin, gorputzaren ezagutza alboratuz, bakoitzaren sexua bizitzeko era errepika ezin hori galtzen dugu.

Honenbestez, harreman erotikoen kalitatea minimora jaisten da. Horregatik, honelako gaiak lantzen dituen Arraio Irratiko *Kitzikan* saioa gomendatzen dizuet, pixkanaka bada ere begiak ireki eta gure gorputzen jabe egiteko.

**azku**  
karrozeria

Ubegun industrialdea, 7

20809 Aia-Orio

Tf/fax: 943 83 51 86

carroceriasazkue@hotmail.com





Abuztuaren 18an, Euskotren Ligako irabazleei egindako erretribimientuan.

## Oroimenaren kutxa

# Gure arraunlariak eta G-7a

**K**ARKARAK eskatu dit oraingoan arraunaz idazteko. Ez da harritzekoa, kontuan hartuta Kontxako Estropadaren aurreko astean plazaratuko dela aldizkaria; gainera, urte ona da hau arraunaz idazteko. A zer urtea! Eta, atal hau oroimenaren kutxa denez, bururatu zait KARKARA sortu zenetiko 30 urteetako arrauneko gertaera nagusiak ekartzea: 1989tik 2019ra bitartekoak.

Gauza asko gertatu dira tarte horretan. *Zazpi* izan da zerbaki magikoa oriotarrentzat: *Zazpi* aldiz ekarri dute Kontxako bandera: 1992, 1996, 1997, 1998, 2000, 2007 eta 2017an. *Zazpi*etako hiru, 7 zerbakiko urteetan: 1997, 2007 eta 2017an. Gainera, 2017an bi: urtekoa eta 1939koa, Oriori bulegoan palmaresetik kendu eta herriaren ekimenez berreskuratu zena.

Aurtengoa aspaldiko denboraldirik borobilena doa, historikoa. 2019-07-17an Gipuzkoako traineru-txapelketan nagusitu ziren, neskak eta mutilak. Liga hasi zenetik ez da izan astebururik alironik gabe. Igande batean zazpi bandera astindu zituzten udaletxeko balkoitik, asteburu bakarrean eskuratuak. Mutilen B ontziak zazpi estropada irabazi ditu bere ligan. Aurtengoa 17. edizioa du traineruen ligak; eta, orain arte ligan sekula nagusitu gabeko klubak, aurten hiru irabazi ditu, parte hartutako hirurak.

*Bat* izan da zerbaki madarikatua: 21 mendea hasi berritan, 2001ean, Orio bere arraun-historia osoko festarik handiena ospatzeko prest zegoen. Lehen igandean bigarrenari 10 segundo kenduta, bandera irabazitzat jo genuen, baina bandera Castrok eraman zuen. 2011n, berriz, arraun-ligako bigarren mailara jaitsi zen trainerua.

Aipamena merezi duten beste gertaera berezibatzukere izan dira 30 urteotan. Arraunketa olinpikoko zortzikoak

bederatzi urtez jarraian eskuratu zuen urrezkoa Espainiako txapelketan, 1994tik 2002ra. 2012an, aurreko urtean jaitsita, bigarren mailako ligako estropada guztiak irabazi zituzten. 2001ean, alironaren euskal bertsioa sortu genuen: *Ez dago oriotarrik kantatu hau ez dakinik, ez dago mundun herririk bandera gehio dunik, aliron, bandera da Orion!*. 2013an, Arraunetxe zabaldu zen, estatu osoko arraun instalaziorik handiena. Aurten, 2019, traineruak barruan herritar askoren izena darama idatzita, ontzia erosteko diruz lagundu dutenena.

30 urteotan, aurreko 100 urteetan bezala, Orio izango da noski arraun munduari ekarpen nabarmenak egin dizkion herria. Gauza asko aldatu dira arraun munduan, azpimarragarriena nesken arraunaren indarra. Orain Orioko arraunaren historian neskak eta mutilak ageri dira. Manuel Olaizolak 1901ean zabaldutako patroien zerrendan, Nadeth Agirre ere hor dago.

Abuztuko egunak herritarroi alaitzeko, Gure Zirkua ere Orion izan dugu, aurreneko euskal zirkua. Ona. Baina zirkua Biarritzen montatu digute, negargarria. G-7ko politikariek antipolitika eginez, herritarrak molestaturik, nazkatuz, haserretuz, zazpi zerbakiaren magikotasuna izorratu digute. Txarrenari ere alde ona bilatzen hasita, esango dugu jende asko jarri dutela haien politika militarista hiltzaileen kontra. Umerez hartuta, txisteak egiteko aukera eman digute: Irunetik Hendaiara joateko bidetxorra proposatu digute, atajoa: Kataluniako La Junqueratik. Ondo pentsatuz gero, agian ez da txarra! Zakilixutek ere esan zigun hori Berrian: Gu, 7ak bat!

Ondorengo 30 urteotan ere oriotarrak arraunean arituko dira. Segi herri kirol euskalduna egiten! KARKARAK segituko du herritarrei horren berri ematen. Beste 30 urtez gutxienez baietz!

**Alustiza Autobusak**  
Alustiza Bidaiak S.L.



Autobus litera eta  
16, 19, 25 eta 56 plazakoak.  
Bidaiatu eta ezkontzetara edo sagardotegira joateko.

Tel. 943 13 28 93/ 83 08 80. Mugikorra: 656 78 30 01- 656 78 29 99

**TAILER MEKANIKOA AUTO LAN**



Pelotari 5, Orio  
943 83 00 34

Zure Konfidantzazko  
**Gertuko Tailerra**



**Seguros Bilbao**

Tel: 943 111 600  
688 714 869

Endaia Enparantza, 1  
20810 Orio (Gipuzkoa)

Santi Barranco  
Orioko ordezkaria

e-posta: sbarranco@segurosbilbao.com



**Imanol Illarramendi**  
Aia (Gipuzkoa)



**KORTABERRI**  
arotz lanak

kortaberi.arotza@hotmail.com

665 70 33 47

**PERTSIANAK**

A K O M A Z



Aluminio, PVC  
Venezianak  
Motorrak...

Tel. 943 13 29 01 Mugikorra 600 70 52 27



**IGLESIAS SARRILAGILEAK**

**24 ORDUKO ZERBITZUA**

Javier Iglesias Fernández  
637 723 308  
iglesiascerrajeros@yahoo.es  
**20810 ORIO**

- ATEAK IREKITZEN DITUGU
- SARRAILA-ZILINDRO ALDAKETAK
- ATEAK IXTEKO MALGUKIEN ALDAKETA
- KOMUNITATEENTZAKO ZERBITZUA




Tf: 943 130 438




**www.fontaneria-fontana.com**

- Komun eta sukaldeen erreforma
- Galdara eta termo elektrikoaren instalazioa
- Ur-jarioak aurkitu eta konpondu
- Bainujontzia kendu eta dutxa jartzea
- Zoru erradiazatzea

**Fontana iturgintza**

Plaza Endaia N°1, 20810 - Orio  
fontana-ju@hotmail.es  
943 539 888 • 661 262 828

ITURGINTZA - GASA - BEROGAILUAK

zerbitzu teknikoak  
24 ordu



urbide  
iturginak s.l.

Iturgintza - Berogintza

Bizkaia Kalea, 4  
20800 | Zarautz  
943 890 069  
urbideiturginak@gmail.com  
www.urbide.es

**LUXARBE**  
igeltseritza

Igeltseritza orokorra, denetarik egiten dugu.

Presupuestoak eskatu konpromisorik gabe

Lan txukuna eta merkea

Tfnoa: 943 83 59 00

**Desatascos**



**688 886 536**

desatascos@desatascoslaster.com  
www.desatascoslaster.com

**24 ORDU**



Hodi-libraketa  
Garbiketarak presio handiko urarekin  
Saneamendu-sareen mantenu prebentiboa  
Hodien, isurbideen eta estolderiaren ikuskatzea, kamerarekin  
Uholde urak ateratzea  
Ezkutuko kutxatilen detekzioa

Sagar erreka 21-A • 20590 Sorluze  
Abaromendi bajo 3 • 20810 Orio  
Tel: 943 751 431



**ANORGA TXIBI S.L**  
KRISTALDEGIA

- komertzial instalazioak · beira bikoitza
- segurtasun beirak · dutxa-itxiturak eta irristailuak
- ispiluak · barandak · kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

# Pittitto-pottotta



Leire Zinkunegi

**Aluak duen balioa hartuko du, zakilari beharrezkoak diren mugak jarritz, gizontasunaren eta emetasunaren arteko oreka berreskuratuz.**

**L**efinterra sentitu eta kontrolatzearekin bat; ni *pittitto*, ama *pottotta*...dio nire txikiak. Zein ederrak diren gorputz guztiak, zein ederra den bakoitzaren mugimendua eta askatasuna, inguruarekin komunikazioan. Zein ederra den bakoitza bere mugimenduan inori minik egin gabe azaltzen garenean, kontutan hartzen garenean, batak besteari lekua egiten diogunean, entzun eta elkarbanatzen garenean, elkar ikasten dugunean.

Orduan nire gorputzari erreparatu diot, nire aluarekiko ditudan konplexuak, kulturak eragindako motxila zahar, mugatzaileak direla jabetuz. Eta hainbeste erasoren aurrean, zer eta bakarrik ez ibiltzeko gomendioaren iraina egiten digute. Maskulinoaren gorazarreak eta femeninoaren gutxiesteak ekarri gaitu hona. Gizarte matriarkaletan eraso portzentai oso txikiak kontatu izan dira, naturarekin duten oreka nabarmenduz. Aldiz gizarte patriarkaletan erasoak egunerokoak eta esparru askotarikoak, naturan inpaktu ekologiko kaltegarriagoak eraginez. Boterea, zakildunaren plazerean zentratu da, edozer eta edonoren gainetik.

Sexualitate ezjakin eta mugatuan kateatuta gabiltza regetoi bortitza entzunaz, ideia eta fidelitate antzuetan galduaz, Woody Allen bezalako pederastak onartuaz. Aluak duen balioa hartuko du, zakilari beharrezkoak diren mugak jarritz, gizontasunaren eta emetasunaren arteko oreka berreskuratuz.

Noizbait eraiki ziguten zakila moztuko dugu eta hondartza den alu gozotik, berriz ere eguzkia itsasoratzen ikusiko dugu ortzi-mugan, ama-lurrarekin bat ongizatean kulunkan.



Iñigo Gaiton

## Azken argien aurrean

**G**ure aiton-amonen mundualdia ahitzen ari da, poliki-poliki. Zahartzaroari –eta heriotzari– muzin egiten dion mundu berriaren seme-alaba garenontzat, ariketa gordin bezain errealista izan daiteke etxeko zaharren azken argiak itzaltzen ikustea. Noiz hiltzen gara? Noiz hil nahi dugu?

Lehengo batean, egunkarian hilezkortasunari buruzko albistea irakurtzen ari zen 90 urtetik gorako emakume bat ikusi nuen ospitaleko itxarongelan. Eszena aproposa iruditu zitzaidan gizarte tradizionalaren eta modernoaren artean gertatzen ari den talka bortitz eta ekidin ezina gorpuzteko. Zeharka begiratu irakurri ahal izan nuen lerroburuaren arabera, 2050erako prest egongo omen da gizakiok hilezko egingo gaituen *edabe magikoa*. Hiru hamarkada falta dira.

Prestakuntza akademikoari dagokionez, punta-puntakoa da gure belaunaldia. Unibertsitateko tituluak eta masterrak ditugu, atzerrian egindako ikasketak, eta txukun moldatzen gara ingelesez. Zer eskaintzen digu, ordea, horrek guztiak bizitzako gai potoloen aurrean? Ikasiko al dugu bizitza aiton-amonen xalotasunarekin bizitzen?

Helduko al gara zahartzaroa edo heriotza bizitzaren ezinbesteko parte direla benetan onartzera, etengabe gaztetasun eternoarekin amestera behartzen gaituztenean? Asmatuko al dugu mundu zaharraren eta berriaren arteko tenkan oreka bilatzen?



Andoni Elizalde, Dionisio Redondo, Jabier Puertas eta Pello Olasagasti. KARKARA

# Duela 40 urteko lorpena gogoan

Irailaren 2an, 40 urte beteko dira Andoni Elizalde, Dionisio Redondo, Jabier Puertasek eta Pello Olasagastik Esloveniako Bled hirian Espainiako Selektzioarekin **Munduko Txapelketa irabazi zutela.**

## AIORA LARRAÑAGA

**O**rio Arraunketa Elkartearen historiaren parte dira arraunlari beteteranoak, eta arraun elkartean bildu ditu KARKARAK garai zaharrak gogoratzeko eta arraunak bizi izan duen garapenaz aritzeko.

Lau arraunlariak oraindik gogoan dute hasiera hartako arraun elkartea. *Toki Alai azpian txabola zahar bat zegoen eta han genuen arraun elkartea. Ez zegoen gimnasiorik, ezta gaur egungo instalazio modernorik ere.*

*Ur hotzarekin dutxatzen ginen, entrenamenduen ondoren. Gero Dikera joan ginen, hango elkartea berriagoa zen, ur beroa baguenen behintzat. Gogoan dute, elkartearen alboan txerriak akabatzen zituzten hiltegia zutela.*

Orduko azpiegiturak egokienak ez baziren ere, arraunketa olinpikoan Espainia mailan punta-puntan zebilen orduan Orioko arraun elkartea. 1979an Espainiako Selektzioarekin Munduko Txapelketa irabazi zuten zortzikoan, esaterako, bost arraunlarik Orio



Zutik, Andoni Elizalde, Dionisio Redondo, Jabier Puertas eta makurtuta, Pello Olasagasti. 1979.

Arraunketa Elkarteko fitxa zuten: Andoni Elizalde, Jabier Puertasek, Dionisio Redondok, Pello Olasagastik eta Fernando Climent sevillarrak. *Garai hartan, ez zegoen arrauna ez zen beste kirol aukerarik herrian, eta kirola egin nahi zuten gazteak arraun elkartera etortzen ziren. Arraunerako tradizio handia genuen herrian, eta entrenatzeko eta irabazteko gogo handia. 1977ko Munduko Txapelketan, esaterako, 23-25 urterekin, zilarrezko domina irabazi zuten, Erresuma Batuen atzetik sailkatuta, eta urrea irabaztetik zazpi ehunenekotara geratu zen taldea. Handik bi urtetara berriz, 1979an, Munduko Txapelketan nagusi izan ziren oriotarrak, eta urrezko domina eskuratu zuten.*

Gaur egun arraunerako azpiegitura eta material hobeak badaude ere, duela 40 urte baino herriko arraunlari gutxiago iristen dira nazioarteko goi mailako txapelketetara. Arraunlari beteranoen ustez arrazoia bakarra da: *Gaur egun tostako arraunketan jartzen dira indarrak herrian. Tostako arraunketak oihartzuna du komunikabideetan, eta telebistaz emititzen dituzte estropadak; horrek babesleak erakartzen ditu, eta diru pixka bat mugitzen da. Mugikorrean, berriz, bat ere ez. Traineru estropadarik ez balego, arraunlari horiek guztiak arraunketa olinpikoan goi mailan lehiatuko lukete. 70. hamarkadan, berriz, bi arraunketa ereduak uztartzen zirela azaldu dute. 1974an eta 1975ean Kontxako Bandera irabazi genuen; 1976an bigarren sailkatu ginen, eta 1977an arraunketa olinpikoko munduko txapelketa jokatzera joan ginen.*

### Donostiako Estropadak

Aurten denboraldi bikaina egiten ari dira Orio Arraunketa Elkarteko txalupa guztiak, eta arraunaz gozatzer ari dira, Elizalde, Puertas, Redondo eta Olasagasti, gainontzeko arraunzaleak bezala. *Oso ondo dabilta aurten etxeko taldeak. Jende gaztea etorri da, eta bandera gosea dute. Banderarik irabazi gabeko arraunlari asko daude, eta hori oso inportantea da, motibazioa sortzen baitu. Neskek ere denboraldi bikaina egin dute; pasa den urtean bigarren sailkatu ziren ia estropada guztietan, eta horrek zama handia eragiten du. Horregatik, benetan pozgarria da aurten bandera zaparrada irabazi dutela ikustea.*

Asteburuan jokatuko da Donostiako Estropadako lehen jardunaldia, eta arraunlari ohiek eta oriotar guztiak adi-adi jarraituko dute denboraldiko arraun hitzordurik garrantzitsuena. *Ez da erraza izango Kontxako Bandera irabaztea, talde guztiak sasoi betean iritsiko baitira Kontxako estropadara. Zorteak ere zerikusia izan ohi du. Lehia estua izan ohi da, akatsik txikienarekin bandera galtzen baita.*



1979ko irailaren 2an Eslovenian Munduko Txapelketako garaile. D. Redondo, J. Puertas, J.A. Exposito, L. Arteaga, P. Goikoetxea, J. Uriarte, A. Elizalde, F. Climent eta P. Olasagasti.

Goazen Orioko eta Aiako errezeta liburua idaztera. Lagunarteko otorduak; paper muturrean gordetako osagaiak eta kopuruak; etxeko jan ohiturak; baratzak, errioa eta itsasoa; jatetxeetako sukaldeak... Mahai bueltan gauza asko egin daitezke, interesgarrienak bi: jan eta berriketan egin. Ahal dela ez egin biak batera.

# “Eskerrak eman nahi dizkiet bezeroei eta oriotar guztiei”

**Marisol Albeniz**  
**Lasaña**



## **Osagaiak**

Tomate naturala litro erdiko lata bat  
Tipula erdia  
Piper berdea, laurdena baino gutxiago  
Haragi xehatua 400 gramo  
Irina 170 gramo  
Esnea 0,65 litro  
Pasta laminak  
Gazta birrindua  
Olio, gurina eta gatza

## **Nola egin?**

Tipula eta piper berdea potxatu lehenengo eta tomate gehitu. Bost-hamar minutu egosten utzi. Tomatea iragazkian pasa eta azukre pixka bat eta gatza gehitu. Haragi xehatua prestatu zartaginean olio pixka batekin, eta prest dagoenean tomatea bota. Osagaiak ondo nahastu behar dira, eta haragiak tomate zaporea hartzeko sutan utzi bost minutuz. Ondoren, pasta egosi behar da. Marisolek arrautzarekin egindakoa erabiltzen du bere lasaña egiteko. Bexamela prestatzeko, olio pittin bat eta gurina bota lapikora, eta desegiten denean, irina gehitu. Osagaiak ondo uztartzen direnean, aurretik kazuela batean irakiten egon den esnea, pixkana osagaiei gehitu. Une horretan

oso garrantzitsua da, poliki-poliki eragitea, etenik gabe, bexamela loditu dadin, baina pikorrik izan ez dezan. Azkenik, bexamela prest dagoenean gatza bota.

Osagaiak prest daudenean, lasaña muntatzea geratzen da. Bandearen oinarrian tomate pixka bat jarri eta gainean pasta laminak. Ondoren haragi xehatua eta laminak tapatuta daudenean, beste kapa bat jarri gainean. Hurrengo kapa bexamelarekin egindakoa izango da, eta haren gainean beste pasta kapa jarri behar da. Bukatzeko, bexamelarekin eta pasta laminekin itxi.

## **AIORA LARRAÑAGA**

Berrogei urte egin ditu Marisol Albenizek harategiko mostradorearen atzean lanean. 65 urte bete berri ditu, eta abuztuaren 3an hartu zuen erretiroa. Harategia itxita, hutsunea utzi du oriotar askoren sukaldean, ezagunak baitziren bere tripakiak, kroketak, lasaña, txoriak saltsan

eta beste hainbat plater. Dena dela, erretiroa hartu eta agur esan aurretik, oriotarrekin sekretutxo bat partekatu nahi izan du Marisolek, bere lasaña errezeta.

**Lau hamarkada egin dituzu harategian lanean. Erraz esaten da.**



“Harategiaren bueltan egin dugu familiako bizimodua, bizitza osoa eskaini diogu”.

“Oso eskertuta nago herri osoari. Ez genuen uste jendeak horrenbeste maite gintuenik”.

Ia bizitza osoa pasa dut harategian, 40 urte, hain zuzen ere. Patxi Olidenekin ezkondu aurretik hasi nintzen, oraindik bikote ginela. Iturbide kaleko harategian hasi nintzen lanbidea ikasten, Patxiarekin eta Ixiarrekin. Azken horrek Eusko Gudari kalean denda ireki zuenean, Patxi eta ni geratu ginen harategian. Bertan, 19 urte inguru egin genituen.

#### **Pixkanaka joan al zinen lanbidea ikasten?**

Bai, etengabe aldatzen ari den lanbidea da gurea. Hasieran harategiko lana egiten genuen nagusiki, eta pixkanaka geuk egindako produktuak saltzen hasi ginen: odolkiak, tripakiak, txistorra eta aurrez prestatutako beste hainbat jaki.

#### **Eusko Gudari kalera jaitea aldaketa handia izan al zen zuentzat?**

Bai, inbertsio garrantzitsua izan zen guretzat. Beheko kalera jaitsi ginenean, aldapako harategia etxeko produktuak egiteko lantegi moduan prestatu genuen, eta orduan hasi ginen kroketak, lasaña, haragi-bolak saltsan eta aurrez kozinatutako beste hainbat jaki prestatzen.

#### **Asko aldatu al dira herritarren jateko ohiturak azken hamarkadetan?**

Asko, hala ere, nik uste dut aldaketa handiena azken hamar urteetan gertatu dela. Garai batean txekorra jaten zen gehien, xerrak, gisatua eta heltzeko haragia, esaterako. Orain hori da gutxien saltzen dena, eta lehen baino askoz oilasko gehiago jaten da, baita indioilarra eta txerria ere.

#### **Harategiak lan handia eskatu al dizue urte guzti hauetan?**

Patxi zenak eta nik lan handia egin dugu harategian, eta alabak laguntzeko prest izan ditugu beti. Honen bueltan egin dugu familiako bizimodua, eta bizitza osoa eskaini diogu harategiari. Ia ez dugu oporrik izan denbora honetan. Patxi eta ni ezkondu 25 urte bete genituenean joan ginen lehen aldiz oporretara, eta duela hiru urte esku-muturra hautsi nuenean hartu behar izan nuen beste atsedenditoxa. Abuztuaren hasieran erretiratu nintzen, eta negozioari hainbeste denbora eskaini ondoren, sentipen desberdin asko ditut barruan. Oroitzapen asko datozkit gogora.

#### **Mezuren bat bidali nahi al diezu hainbat hamarkadatan zehar bezero izan diren herritarrei?**

Eskerrak eman nahi dizkiet bezeroei eta oriotar guztiei. Gertuko harremana izan dut beti herritarrekin, eta harategiaren parte izan dira; bezerorik gabe pertsiana itxi beharra izango genukeen eta. Kasu honetan, erretiroa hartu dudalako utzi dut harategia. Herritarrek ohiturak aldatu badituzte ere, harategira etortzen jarraitu dute, eta ez dut bezero faltagatik itxi beharrik izan. Hori oso pozgarria da, komertzio txikiak bizi duen egoera zaila kontuan hartuta.

Horrez gain, nabarmendu nahi dut oso eskertuta nagoela herri osoari, Patxi hil zenean babes handia sentitu genuelako guztiengandik. Ez genuen uste jendeak horrenbeste maite gintuenik. Eskerrik asko bihotz-bihotzez.

**libe**  
dietetika  
elikadura aholkularitza



eusko gudariak 35 :: ORIO  
[ sarrera Arrantzale kaletik ]

943 53 64 94 :: 697 23 86 56  
libegarmendia@gmail.com



**ORIA**  
hortz klinika

Oria Hortz Klinikak **ORTODONTZIA** zerbitzu berria jarri du martxan.  
Prebentzioa ezinbestekoa dela jakinda, hartu aurre etorkizunean sor daitezkeen arazoetara.

Arrantzale kalea, 63 behea  
20810 ORIO  
Tel.: 943 83 36 45



www.podologia-oinarri.com

943 575 361  
Arrantzale 63 · 20810 · Orio

**oinarri**  
PODOLOGIA ZENTROA

**Oreka**  
fisioterapia

943 13 35 37  
Eusko Gudari, 54

Ekografia muskulo-eskeletikoa  
Eskuzko terapia · Talka-uhinak  
Masaje terapeutikoa · Osteopatia

Ile apaindegia  
**MARIJO**



Neska eta mutilentzat

Eusko Gudari, 8 - behea  
Tel. 943 13 47 29  
ORIO


**Katu Horia**  
albaitaritza klinika



ESTROPALARI, 10  
20810 ORIO  
tel. 943 11 66 99

Larrialdia  
668 89 11 29

www.katuhoria.com



**mauka**

PAPERDENDA LIBURUAK ETA OPARIAK

TEL - 943 572 083  
FAX - 943 571 190  
i.asenjo@hotmail.es

INES ASENJO  
ABESLARI, 1  
20810 ORIO

**MENDIZABAL**  
**AROTEGIA**  
Neurriko armairuak  
eta egurlanak

943 831 175 Altxerri bidea  
645 708 491 Beti-Alai etxea  
mendi@arotzgi.net 20810 Aia-Orio

**GARMENDIA**

Higiezin Agentzia  
Aholkularitza  
Aseguruak



info@egarmendia.com  
Tf:943 834 466-Fax: 943 132 941  
Ibai Ondo, 1 - 20810 Orio

**ttipi**  
ttapa



943259695  
ttipittapa.oihane@gmail.com  
Eusko Gudarien,15 - 20810 Orio

emakume arropa - neurri bereziak  
kinkiladenda - barruko arropa

**argine**

15eko deskontua familia ugarien txartelarekin

Eusko Gudari, 9 - Orio  
943 134 889 argine/jantziak

itzilizaso@gmail.com  
Tel:943 83 07 84



**Lizaso Dekorazioa**  
Eusko Gudari, 48 20810 Orio

**ITZIAR KIROAK**

Tel. 943 83 31 03



**KAIIOA**

Arropa  
Oinetakoak  
Osagarriak

- Arrantzale kalea, 8  
T 943 244 685  
ORIO (Gipuzkoa)
- Zigorria kalea, 18  
(S.Frantzisko kalearekiko izkina)  
T 943 021 804  
ZARAUZ (Gipuzkoa)
- Erribera kalea, 10  
T 943 543 323  
ZUMAlA (Gipuzkoa)
- Foru ibilbidea, 2  
T 943 252 375  
Azpetia (Gipuzkoa)

www.kaioa.es

**TXUKUN**  
**LORAZANTZA, S.L.**

Tel. 660 332 756 · 679 428 851

Lorezaintza  
Mendiko lanak  
Indusketak  
Itxiturak

...



txukunlorazantza@hotmail.com



# Leihoen kalitatea Sagastiren bereizgarri



[www.sagastileihoak.com](http://www.sagastileihoak.com)

Eusko Gudari kalean ireki dute denda berria hilabete honetan. Tokiz aldatuta ere, lehengo eskaintza bera izaten jarraitzen dute: kalitateak jarraitzen du markaren adierazle izaten.



**S**agasti Leihoak ezagutzen dutenek, ongi dakite enpresaren indargunea eskaintzen dituen leihoen, materialen eta zerbitzuaren kalitatea, eta bezeroekiko gertutasuna dela. *Ezaugarri horietaz harro gaude, eta egiten dugun lan bakoitza arreta handiarekin jorratzen dugu. Izan ere, jakin badakigu, leihoak aldatzea inbertsio garrantzitsua izaten dela herritarrentzat, eta merezi duen bezala lantzen dugu proiektu bakoitza.*

Duela bederatzirte ireki zuen Sagasti Leihoak enpresak denda Orion. Hogeitabost urte baino gehiagoko esperientzia du leihoen munduan Roberto Sagastik, eta ia hamarkada bat bete da Nerea

Miralles emaztearekin batera Orion denda ireki zutenetik. *Harrera bikaina izan dugu herrian, eta aurten urratsa aurrera egin eta Eusko Gudari kalean denda berria irekitzea erabaki dugu, azaldu du.*

Tokiz aldatu badira ere, lehengo eskaintza bera izaten jarraitzen dute, eta kalitatea da beren markaren adierazlea. Aluminiozko eta PVCko leihoak eskaintzen dituzte: *Bi gama ditugu, erdi mailako gama baina hainbat gehigarri dituena, eta gama oso altua.* Modu horretan, bezero mota guztiengana iristean gain, herritarrek dituzten behar desberdinei erantzuna eman nahi diete. Izan ere, zenbait gunetan bizi diren herritarrek, gainontzekoek ez dituzten behar bereziak dituztela jakin badakite; eta Sagasti Leihoak

enpresarentzat oso garrantzitsua da, horiei denei erantzuna emateko aukera izatea. *Aurrekontua egiterakoan zehatz-mehatz aztertzen ditugu bezeroek izan ditzaketen beharrak. Gainera, badakigu etxe berean, beharrak aldatu daitezkeela gela batetik bestera. Leihoen mundua oso konplexua da, eta merkatuan aukera zabala egon ohi da, horregatik, bakoitzak behar duen hori aurkitzean dago gako.*

Bestetik, leihoen muntaiari ere arreta berezia jartzen dio enpresak. *Leihoen muntaia kalitatea bezain garrantzitsua izaten da: munduko leihorik onenak erosi ditzake norbaitek, baina gaizki muntatuta badaude, arazoak izango ditu hasieratik.* Horregatik, Sagasti Leihoak enpresako lantaldeak behar duen denbora hartzen du, lana txukun eta fin egiteko, akabera ahal den onena izan dadin.

Bezeroen behar, egoera edo aurrekontu desberdinetara moldatzeko, leihoak, kristalak eta pertsiana mota desberdinak hartzen dituzte kontuan Sagasti Leihoak enpresan. Beraz, arduradunek herritarrek animatu dituzte Eusko Gudari kaleko denda berria ezagutzera eta beldurrik gabe aurrekontua eskatzera. *Inongo konpromisorik gabe sartu daitezke herritarrek gurera, ongi-etorriak izango dira beti.*

**Sagasti Leihoak**

Eusko Gudari 7, 20810 Orío, Tel. 943 13 00 77 · Fax 943 53 71 50



Leire Arriola

## *Bi banderak, zergatik ez!*

**Gauden tokira iristeko beharrezkoak izan dira hamar urte hauetan traineruan gurekin aritu diren arraunlari eta bidelagun guztiak.**

Hamar urte, hamaika tostakide eta 232 traineru estropaden ondoren iritsi zaigu koroa altxatzeko unea. Ez da bide erraza izan, baina urteetako esfortzuak eta bertan bidelagun izan ditugun pertsonak aurten egin dugun denboraldi ikusgarri hau egiten lagundu digutela ziur nago. Hala ere, aurtengoari amaiera emateko banderarik preziatuena irabaztea falta zaigu, Kontxako bandera.

Taldeakideak eta entrenatzaileak esfortzu handia egiten ari dira denboraldi guztian zehar eta baita azken entrenamendu hauetan ere. Irabaziz gero, askorentzat lehen Kontxako bandera izango litzateke, baita niretzat ere, eta urte hauetan guztietan banderari urrutitik begira egon garen arren aurten gure eskuetan izan nahi dugu eta hori lortzeko gogor borrokatuko dugu.

Bagenekien denboraldi bikaina egiten ari ginela eta matematikoki liga gurea zela, baina, Zarauzko ikurrina irabazi nahi genuen; bandera honek Kontxarako falta diren entrenamenduak aurrera eramaten lagunduko zigula baikenekien, eta halaxe ari da izaten. Asteburuan estropadarik ez izateak dugun ilusioa eta lanerako gogoa areagotu dizkigu eta grina hori azken prestaketak aurrera eramateko laguntza handia ari da izaten.

Zarauzko bandera eta koroa irabazteak indarrak emateaz gain, igande hartan kiroldegian bizi izan genuenak ere asko lagundu digu. Ikaragarria izan zen bertan bizitakoa. Eskerrak eman nahi dizkiet, talde guztiaren izenean, herriari eta zaletu guztiei beren babesa dugula sentitzeak eta gudan konfiantza osoa dutela ikusteak Kontxako banderarako borrokatzeko gogoa areagotu baitigu. Dena dela, gauden tokira iristeko beharrezkoak izan dira hamar urte hauetan traineruan gurekin aritu diren arraunlari eta bidelagun guztiak. Duela hamar urte traineru hori uretara ateratzeko egindako esfortzurik gabe ez baikenituen oraingo emaitzak lortuko, beraz, mila esker igande berezi hartan gure banderak astintzen egon zineten horiei. Aurtengoari amaiera biribila emateko zuen guztion laguntza beharko dugu ea guztion artean Kontxako bandera herriko plazara ekartzea lortzen dugun. Eta, zergatik ez, bi banderak.

Amaitzeko, zailena gora iristea dela dioten horiei, esan zailagoa dela goian mantentzea. Hori izango da datozen hamar urteetarako erronka, eta guk bidean gozatu dugun bezala, zuek ere gurekin gozatu izana eta datozen urte hauetan ere gozatzeko jarraitzea espero dugu.



Andoni Campos

## Haritzak hazten eta hezten

**Inork jango ez lituzkeen ezkur xumeak ginela aipatu zigun batek azaroan. Haritz izateko gaitasuna geneukala, baina, horretarako lan eta denbora asko beharko genuela.**

**E**tengabeko uberarekin herria horiz jantzi da Kantauri itsasoan zehar sakabanatuta dauden hainbat estropada eremu koloreztatzeko. Aurten gainera, hiru gara, bakoitza bere liga eta mailan, onenak izateko bidean: argi, *hemengatoztink!*

Bai! Orio izena soinean eramanda 3 liga irabaztear gaude: neskak nagusi izan dira uda osoan zehar; mutilen bigarren taldeak, berriz, Larra eta Alexanderren agindupean, lehia estuagoa mantendu du liga guztian zehar Castrokekin eta guk, Galiziako bigarren bidai luzea eta gero, matematikoki ez baina, gauzak ikaragarri okertu ezean, liga poltsikoan daukagu. Hori lortzeko bidea luzea, gogorra eta era berean oso motibagarria izan da.

Inork jango ez lituzkeen ezkur xumeak ginela aipatu zigun batek azaroan. Haritz izateko gaitasuna geneukala baina, horretarako lan eta denbora asko beharko genuela. Negu sasoiari, inork ez luke apustu egingo gugatik, baina lan gogor, giro ezin hobe eta umiltasun handiarekin, haritz sendo eta iraunkor bihurtu gara.

Indartsu eta motibatuta gaude, baina, batez ere, neguan egin eta udan erakusten ari garen gure lanarekiko izugarrizko konfiantza daukagu. Orain arte lortu dugunak atzean bere arrazoi sendo eta indartsuak ditu; ez da kasualitatea izan zortzi garaipen lortzea eta horretan, taldeko arraunlari eta laguntzaile bakoitzak bere aleak ereiteaz gain, bada pertsona bat, guztiaren gainetik gudan sinetsi eta hasiera hasieratik fruituak ematen ari diren haritzak hezten eta hazten egon dena: Jon Salsamendi. Orio gaur dena izatera iristearren errua, hein handi batean, berea da.

Herria aipatuz hasi naiz, eta ez nuke nahi idatzi hau bukatu herriaren garrantzia azpimarratu gabe. Zoragarria da egunero herriko plazatik, Ikastolatik autobide azpiko zubiraino doan paseotik nahiz barratik *Aupa Orio!* oihuak entzutea.

Zoragarria da baita ere, historiak bultzatuta ziur asko, Donostian nagusituko den kolorea horia izango dela imajinatzea... Eta zoragarria da herri oso baten esperantza nahiz ilusioaren partaide izatea.

Jarrai dezala herria-arrauna binomioak martxan; guri, indar berezia ematen digu eta. Aurtengoan, gure tostartean eramango zaituztegu (izena jarria izan edo ez) eta ea nor den gai, 14 ordezkari osatutako herri oso baten indar eta ilusioari aurre egiteko!

Aupa Orio!



## Festa jendetsua izan da aurtengoa

Gazte Egunarekin eman zioten hasiera jai giroari Aian herriko gazteek. Gaueko kontzertuek eta Paella Lehiaketak bisitari ugari ekarri zituen herrira. Abuztuaren 6an, uretako jolasen ondoren bota zuten txupinazoa, eta herri afariarekin ospatu zuten festen hasiera. Larunbatera bitartean ekitaldiz betetako jaiak ospatu zituzten herrian. Txikienei, gazteei nahiz helduei zuzendutako egitarauak jende ugari ekarri zuen Aiara.



# SAN LORENTZO JAIK 2019






ROSANA ARGAZKI ESTUDIOA

## Euskotren ligako txapeldunak!



2010eko martxoaren 21ean lehenengo estropada jokatu zuen hamaulakoa eta ordezkook.



**ORDEZKOAK:**  
Ainhoa ILLARRAMENDI  
Lide LERTXUNDI  
Naiara CAMPOS  
Izaskun MANTEROLA  
Itziar SEGUROLA



Orio Arraunketa Elkarteak 2010ean atera zuen lehen aldiz emakumezkoen trainerua uretara. Martxoaren 21ean jokatu zuten lehenengo estropada, Deustun. Hamar urte pasa dira, eta, 232 estropada jokatu, hobekuntzarako bilakaera izan du Xanti Zabaletaren taldeak.

Aurten, Liga biribila eginda Euskotreneko irabazle bihurtu da Orio. Koroa etxeratu dute puntuazio marka onenarekin, bijardunaldiren faltan, hamairu garaipen lortuta, baita urrezko dominak eskuratuta ere Gipuzkoako eta Euskadiko Txapelketetan. Liga amaituta, Kontxa dute helburu.



KARKARA

# Kareletik

**Abuztuaren amaieran gaude eta oriotarrok oraindik aurtengo denboraldiko momentu onenak bizitzeko gaudelakoan nago**

TESTUA: JOSE LUIS SAN SEBASTIAN (PEÑA PETRIL)

**A**urrendenboraldiko jaitsierak eta trainerilen errendimendua ikusita, aurtengo denboraldia ilusioarekin hasi dugu oriotarrok. Halere, gure hiru traineruek orain arte lortutako emaitzak gehien aurreikuspenak gainditu dituzte.

Orio B: KAE 2 ligako lehen postuan dago eta Castroko traineruarekin igoera zuzena borrokatzen ari dira; oraindik Elantxobe, Mutriku, Portugalete, Pasaia eta Hondarribiko banderak irabazi dituzte, eta denboraldi zoragarria egiten ari dira. Arraunlari batzuk, gainera, A ontzian estropada batzuk jokatu dituzte eta erakusten ari dira beraiekin ere kontatzea badagoela traineru nagusirako.

Orio Emakumeen Trainerua: Ibilbide luze eta gogor baten ondoren iritsi da Orioko nesken traineruaren urrezko urtea, aurrendenboraldia ilusioarekin jarraitu dugu eta orain arteko denboraldia zoragarria egiten ari dira. Orioko estropada epikoa izan zen, eta taldearen heldutasuna eta konpromisoa bizi izan genituen, gure neskak beste garaipen eder bat lortzen ikusi genituen Orion, toletearen apurketaren madarikazioa gaindituz.

Euskadiko txapelak dira eta Euskotren Liga matematikoki irabazia dute Zarauzko estropada aurretik eta ligako 10 bandera irabazita dituzte dagoeneko.

Orio A: Denboraldia hasi aurretik izandako *baja* kopurua kezkarria izan zen, arraunlari batzuk utzi zuten eta arraunlari gehienak *ukitu* zituzten horretarako aurrekontu handiak erabiltzen dituzten taldeetatik. Halere, Jon Salsamendik lortu zuen talde eraberritu bat osatzea, eta neguko lan onaren ondorioz, aurrendenboraldiak ilusioa piztu zuen zalegoan. Taldea *basatia* zela eta uda honetan *dibertituko* ginela agindu zuen Jonek eta,... hala da, ni *dibertitzen*, gozatzen, hunkitzen, pozten ari naiz estropadero eta nire ingurukoak ere bai.

Orain arte sei garaipen ligan, Gipuzkoako txapelketa, lidergoa ligan ...TKE eratu zen urtetik (2003) liga onena izaten ari da. Urtero bezala ilusioarekin hartu genuen denboraldia eta, ilusioz eta konfiantzaz jarraitzen dugun denboraldia bihurtu da 2019koa.

Abuztuaren amaieran gaude, eta oriotarrok oraindik aurtengo denboraldiko momentu onenak bizitzeko gaudelakoan nago. Aupa Orio!

# Orioko flota desagertze bidean

Azken hiru hamarkadetan nabarmen aldatu dira gizartearen ohiturak. Horrek, eragina izan du bertako lanbideetan eta itsas ondarean. Orion, esaterako, bost itsasontzi geratzen dira egun, eta **arrantza sektoreak badaki urte gutxi geratzen zaizkiola Orioko flotari**. Xabier Alberdi eta Xanti Peirok beren iritzia eman dute.

**AIORA LARRAÑAGA**

**S**an Antonio Egunean, San Nikolas Kofradiako kideek azken argazkia atera zuten kofradia zaharraren aurrean. Une hunkigarria izan zen herriko arrantzaleentzat, laster eraitsiko baitute herriko ekonomiaren eragile garrantzitsua izan den sektorearen ikurra.

Azken 30 urteetan behera egin du nabarmen baxurako arrantza flotak herrian, eta kofradia zaharra ere beheraldi horren isla izan da. 90eko hamarkada hasieran 30 itsasontzi inguru zeuden herrian, eta gaur egun bost dira. Fenomeno hori ez da Orion soilik gertatu, Euskal Herriko beste hainbat herritan ere atzeman baitute gainbehera. *Herri bakoitzak bere berezitasunak ditu, eta horiek zerikusi zuzena izan dute arrantza sektorearen egoeran. Hala ere, badaude Euskal Herri mailan eragin duten faktore orokorrak ere, azaldu du Donostiako Ontzi Museoko zuzendari Xabier Alberdi historialari eta antropologoak. Izan ere, portu batzuetan flota desagertu egin da, eta beste batzuetan murriztu, Orion bezalaxe.*

Alberdiren iritziz, baxurako arrantza sektoreak hainbat oztopo gainditu behar izan ditu azken hamarkadetan. *Alde batetik, nazioarte mailan, estatu bakoitzak bere arrantzategiak ustiatzeko araudia finkatu zuen, eta Europatik kuotak ezarri zitzaizkien itsasontziei. Bestetik, jasagarriak ez diren arrantza tekniken hedapenak ere eragina izan zuen baxurako arrantzan; herritarrek gogoan izango dituzte 90eko hamarkadan gure arrantzaleek egin zituzten protestak ontzi frantsesek erabiltzen zituzten sare pelagikoen aurka. Horiez gain, itsas ondarean adituak uste du ingurumenarekin zerikusi duten hainbat faktore ere bat etorri direla, eta zenbait espezieren biomasa txikitzea eragin dutela. Prestigiek sortutako kutsadura*

*izan zen horietako bat, baita ingurumenarentzat kaltegarriak diren arrantza tekniken erabilera ere. Izan ere, ingurumenean ez du ondorio bera atuna banaka-banaka kanaberarekin harrapatzeak edo sare erraldoiekin arrantzatzeak. Ondorioz, egun arrantzaleek, geroz eta urrutiago joan behar dute lehen itsas bazterrean aurki zitezkeen espezieak arrantzatzeko.*

## **Bat-batean, aldaketa**

Alberdik uste du, gizartearen ohitura aldaketek ere ondorio zuzena izan dutela arrantza sektorearen beheraldian. *Mendeetan itsasoarekin izan dugun lotura hausten ari da. Itsasoan ez dugu etorkizunik ikusten, ez dugu bizimodua aurrera ateratzeko aukera bezala ulertzen, eta lehorreko lanbideen aldeko hautua egin dugu herritarrok. Kultura arloan ere gauza bera gertatu da, lehorreko kultura da baloratzen duguna, eta kostaldeko herrietako itsastartasuna galtzen ari gara, ziztu bizian gainera. Hori horrela, etorkizunean izango al dugu gure kostaldean marinelik?*

Historialariaren iritziz, ez da irudimen handirik behar etorkizun hurbilean gertatuko dena iragartzeko. XXI. mende hasieran, esaterako, Euskal Herriko arrantza-ontziak bat-batean arrantzalerik gabe geratu ziren. Gogoan du gertatutakoa Orioko Kofradiako presidente ohi Xanti Peirok ere. *Adreiluaren burbuila puzten hasi zenean, arrantzale askok lehorrean lana bilatu eta itsasoa uztea erabaki zuten. Oso gogorra izan zen egoera ontzi-jabeontzat, kanpaina batetik bestera tripulaziorik gabe geratu, eta atzerrira joan behar izan baikenuen arrantzale bila. Aurrena ekialdeko herritarrek, eta gero afrikarrak etorri ziren euskal itsasontzietara lanera. Burbuila*





Herriko flotaren bilakaera 1992tik 2019ra bitartean. Argazkia: JON MUJIKA. Infografía: KARKARA.

lehertu, eta krisi ekonomikoa iritsi zenean, ordea, bertako asko lanik gabe geratu ziren. Pentsatu zuten itsasora bueltatzeko aukera izango zutela. Guk, ordea, ezin genituen urteetan gurekin lanean aritu ziren atzerriko arrantzaleak bota, bertakoak hartzeko. Tentsio uneak bizi izan genituen moila gainean.

“Lehorreko kultura da baloratzen duguna, kostaldeko herrietako itsastartasuna galtzen ari gara, ziztu bizian gainera”.

### Arrauna oriotarren bereizgarria

Arrantzaren etorkizunaz hausnartzerakoan, aurrez gertatutakotik ikasi behar dela uste du Xabier Alberdi

historialariak. *Garaiak aldatzen ari diren heinean, herritarren beharrak aldatu egiten dira. Mendeetan gure kostaldea eta erribera ontziolez beteta egon da, eta bertan zurezko ontziak egiten zituzten ontzigintza tradizionalako teknikak erabiliak. Teknologia eta material berriak agertzearekin batera, ordea, zurezko ontziak alde batera geratu ziren, eta altzairuzko arrantza ontziak eta plastikozko ontzi txikiak eraikitzen hasi ziren. Horrek ontziola tradizional gehien gainbehera ekarri zuen.*

Gaur egun, berriz, itsas ondarea berreskuratu nahian dabilta kostaldeko hainbat herritan, eta ontzigintza tradizionala berreskuratzeko proiektuak sortu dituzte Orioko Mutiozabal da horren adibide.

Herrian arrantza desagertzeaz badago ere, Alberdik uste du oriotarrek badutela beste herrietatik desberdintzen dituen itsas ondarea: arrauna. *Oriotarren identitatearen parte da arrauna, eta hori oso garrantzitsua izan daiteke herriaren itsastartasuna bizirik mantentzeko.*

Dena dela, historialariaren iritziz oriotarrek eta herriko erakundeek ahalegin berezia egin beharko lukete, belaunaldi berriei kirol arloaz harago, arraunaren oinarrian dagoen itsas ondarea, tradizioa eta herri izaera helarazten. *Itsas ondarea belaunaldi berriei transmititzea erronka garrantzitsua da Oriorentzat eta oriotarrentzat, horrek baldintzatuko baitu herriaren izaera bizirik mantentzea.*

# “Beharrezkoa da ekintzaileentzat diru laguntza lerroak bideratzea”

## Kandido Esoain

Arrantzale erretiratua

40 urte egin zituen Kandido Esoainek arrantzan eta 2001ean erretiratu zen. San Nikolas Kofradiako presidentea izan zen lau urtez, eta ondo ezagutzen du sektorearen bilakaera.

### AIORA LARRAÑAGA

1961ean hasi zen arrantzan Kandido Esoain, antxoatan. Aurretik Arin eta Enbil enpresan lan egin zuen. Lehorrean egoera zaila zen, ordea, familia mantentzeko larri ibiltzen zen, eta itsasora joateko erabakia hartu zuen. Lehen urte hartan 84 mila pezeta irabazi zituen itsasoan, lehorrean hamar urtetan irabaziko lukeena.

#### Asko aldatu al da sektorea 40 urtetan?

Hamarkadaz hamarkada gauzak aldatzen joan dira. Hasi hartan erabiltzen genuen tresneria oso zaharkitua zegoen, eskuz egiten genuen lan dena. Ni kofradiako presidente nintzela berriro zen flota; eta aldaketa eman aurretik, Norvegiar izan ginen bertan erabiltzen zuten teknologia eta tresneria ezagutzen; hurrengo hamabost urtetan, behar-beharrezkoa zen aurrerapausoa eman zen, arlo horretan.

#### Hiru hamarkadatan asko jaitsi da itsasontzi kopurua Orion. Zuek aspaldi antzeman al zenuten beherakada?

Ni Orioko San Nikolas Kofradiako presidentea izan nintzen lau urtez, eta beti Arrantza Federazioaren inguruan ibili izan naiz. Ordurako bagenuen arrantza sektorearen etorkizunaren inguruko kezka. Izan ere, Orion itsasontzien kudeaketa gurasoengandik seme-alabengana igaro da beti, eta belaunaldi berriek ez dute etxeko enpresarekin jarraitu nahi izan. Horixe gertatu da Orion.

#### Dena dela, ontzi-jabeen seme-alabez gain, arrantzale askok lehorrean lan egiteko hautua ere egin zuten?

Denok gara beheraldiaren errudun. Lehorreko jarduera ekonomikoa indartzen hasi eta jornalak handitu zirenean, itsasokoen parekoak ez baziren ere, arrantzale



asko lehorrean geratu ziren lana bilatuta. Nahiago izan zuten familiarengandik gertu egon.

#### Oso sonatuak izan ziren 90. hamarkadan egin zenituzten borrokak ontzi frantsesek erabiltzen zituzten arrastreko sare pelagikoen aurka.

Oso borroka gogorra eta arriskutsua izan zen. Itsasontzi frantsesen kontra joaten ginen itsasoan, elkar jotzera. Batean itsasontzi frantses bat ere sartu genuen behartuta portura. Guk ikusten genuen sare horiekin itsasoa suntsituko zutela, eta horrek eragin zuzena izango zuela gure jardunean. Egoeraren larritasunaz ohartuta, arrantzaleok borrokatzea erabaki genuen, eta sare pelagikoekin amaitzea oso garrantzitsua izan zen arrantza sektore tradizionala bizirik mantentzeko.

#### Arrantzaren garai oparoa bizi izan duzu zuk. Zer sentipen sortzen dizkizu herrian bost itsasontzi geratzen direla ikusteak?

Hainbeste borrokatu ondoren, oso gogorra da galtzear dagoela ikustea. Sektorea osatzen dugun eragile guztiok dugu egoera honen ardura, baina, Eusko Jaurlaritzak ez du erraztu baxurako arrantzaren etorkizuna. Orain asko zaildu eta luzatu da titulua ateratzeko prozedura, eta horrek kalte handia egin dio sektoreari. Horrez gain, ontzi-jabe familietako belaunaldi berriek etxeko enpresarekin jarraitu nahi ez dutela ikusita, uste dut beharrezkoa dela Eusko Jaurlaritzako ekintzaileentzat diru-laguntza lerroak bideratzea; horrela, etxetik jasotako itsasontzirik ez baina itsasora ateratzeko gogoz dauden herritarrek baxurako arrantzan lanean jarraitzeko aukera izango lukete.

# “Nahiz eta bapore gutxiago egon, lehen baino lan gehiago dugu”

## Ima Peiro

Saregilea

20 urterekin hasi zen Ima Peiro sare josten. Egoera asko aldatu da ordutik, 40 saregile izatetik zazpi izatera igaro baitira. Hala ere, ez du uste ofizioa desagertuko denik.



## INTZA UNANUE

Arrantzaleen lana eta saregileena eskutik joan da betidanik. Ezin batak bestea gabe aurrera jarraitu. Arrantzaleei itsasoan sarea puskatzen zaienean, zarrata handiegia ez bada eurek konpontzen dute, gaua salbatzeko. Lehorrera bueltatzen direnean, ordea, saregileena da lan hori, eta ordu ugari pasatzen dituzte buru-belarri lanean, baporeak ezin baitu itsasora joan sarerik gabe. Lanbidea gertutik ezagutzeko solasaldia izan du KARKARAK Peirorekin. Etorkizunaz ere aritu da.

### Noiz hasi zinen saregile lanetan?

Nik Administrari ikasketak egin nituen eta lanik ez nuenez aurkitzen, aitari esan nion bitartean amari laguntzen hasiko nintzela. 20 urterekin hasi nintzen laguntzen. Berehala ohartu nintzen ofizioa asko gustatu zitzaidala, eta bertan geratu nintzen lanean. Eta hemen jarraitzen dut.

### Gogoan duzu zenbat saregile zineten orduan?

Uste dut berrogei emakume inguruk jarduten genuela.

### Urte haietan zegoen itsasontzi kopurua kontuan hartuta, orain baino lan gehiago izaten zenuten? Nolakoak ziren lanaldiak?

Ez, orain baino gutxiago izaten genuen, langile asko ginen eta. Lehen, goizetan, 10:00etatik 12:00etara egiten zen lan, gehienak etxeko andreak ziren eta etxerako erosketak egiten zituzten goiz partean. Arratsaldeetan lan gehiago egiten zen eguerdi partean hasi eta 20:00ak ingurura arte. Orain, aberia asko daudenen ordu

gehiagoz egiten dugu lan. Getariara ere joaten gara, eta amaitu arte jarduten dugu. Ofizioak, hala ere, berdin jarraitzen du. Erabiltzen dugun tresneria ere ez da aldatu, orratzak, guraizeak... berdinak dira. Sareak bakarrik aldatu dira, orain handiagoak dira. Beste guztiak orain dela 100 urte bezala jarraitzen du.

### Zenbat saregile zaudete orain?

Neguan lau ginen, eta erretiratuta dauden hiru emakumek laguntzen ziguten. Lan asko zen hain langile gutxirentzat. Eusko Jaurlaritzarekin hitz egin genuen, eta ikastaro bat jartzea lortu genuen saregile berriak hartzeko. Hiru emakume gehiago ditugu orain. Bik 50 urte inguru dituzte, eta gazteenak 40.

### Arrantza sektoreak behera egin du azken urteotan. Zuen ofizioan eragin handia izan al du?

Gu goraka goaz, lehen baino lan gehiago dugu. Nahiz eta bapore gutxiago egon, sareak handiagoak dira, eta jende gutxiago gaude.

### Etorkizunean zer uste duzu gertatuko dela zuen lanbidearekin?

Baporeek moilan jarraitzen duten bitartean etorkizuna ikusten diot saregileen lanbideari. Beti beharko da norbait puskatuta dauden sareak josteko. Bapore guztiak desagertzen badira, ordea, guk ere ezin jarraitu. Hala ere, bapore bakar batek martxan jarraitzen duen bitartean, saregile gutxi garenez, ez da izango lan faltarik.



Jon Mujika, Orioko Kofradia Berriaren kanpoan. KARKARA

## “Urte gutxi barru, Orioko moila libre-libre egongo da”

### **Jon Mujika**

Ontzi-jabea eta Kofradiako presidentea

Orioko San Nikolas Kofradiako presidente eta *Montserrat* ontziaren jabea den Jon Mujikak herriko arrantza-ontzi flotaren etorkizuna izan du hizpide.



## AIORA LARRAÑAGA

1978ko udan irten zen lehen aldiz Jon Mujika itsasora, hamalau urte zituela. 32 urterekin, 1996ra bitartean Florentino Genovaren gidaritzapean egon zen *Montserrat* itsasontziaren lema hartu, eta haren jabea izan da geroztik. Hamalau itsasontzi zeuden herrian.

**Orioko baxura-arrantzako flotak beherakada handia jasan du azken hiru hamarkadetan. Zer faktorek uste duzu eragin dutela beherakada horretan?**

Nabarmen txikitu da Orioko flota, gaur egun bost itsasontzi bakarrik baititugu herrian. Nire ustez, gazteek ez dute itsasoa lanerako aukera moduan ulertzen. Itsasoa gogorra dela eta etxetik kanpora egun asko egon behar dela ikusten dute, eta ez dute bizimodu hori nahi.

**Pixkana joan al da Orioko flota txikitzen?**

Bai, ontzi-jabeak erretirutzen joan diren heinean, itsasontzi kopuruak behera egin du. Beste portu batzuetan, Getarian eta Hondarribian esaterako, nabarmendu dute beherakada, baina gazte batzuek gurasoen lekukoa hartu dute, eta itsasontziarekin jarraitu dute. Orion ez da horrelakorik gertatu; agian gure errua ere izango da, gazteei ez diegulako transmititu itsasoarekiko grina.

**Zer etorkizun du herriko arrantza sektoreak?**

Urte gutxi geratzen zaizkio Orioko baxura arrantzari, gehienez beste hamar urte iraungo ditu. Niri bi urte geratzen zaizkit erretiroa hartzeko, eta nire egoera berean ontzi-jabe asko daude. Hemendik hiru-lau urtera bi itsasontzi geratuko dira, eta horiek erretirutzen direnean, Orioko baxura-arrantzako flota desagertu

gingo da, horiek ere ez baitute itsasontziarekin jarraituko duen inor atzetik.

**Egoerak zer sentimendu sorrazten dizue arrantzaleoi?**

Pena handia ematen digu. Orioko moilan 80. hamarkadan ateratako argazkietan portua bete-betea ikus daiteke; 28 bapore ziren orduan herrian. Orain, berriz, bost geratzen dira, eta urte gutxi barru, Orioko moila libre-libre egongo da.

**Beste faktoreren batek lagundu al du beherakada horretan?**

Patroi izateko eskatzen duten titulazioan ere aldaketak egon dira. Lehen batxilergorik izan ez arren, edozein arrantzalek patroizateko titulua atera zezakeen Pasaian. Duela hamabost urte inguru, titulua ateratzeko prozedura zaildu egin zuten, eta gaur egun, goi mailako ziklo bat da; hori egin ahal izateko unibertsitateko sarbidea gainditu behar da lehenengo.

**Uste duzu lehenago esku-hartu izan balitz, egoera bestelakoa izango litzatekeela?**

Aspalditik gaia lantzen ari gara Gipuzkoa mailan, baina ez diogu irtenbiderik bilatu, gazteek itsasora irten nahi ez badute, ez baitago ezer egiterik. Ez da Orioko arazoa bakarrik. Lehen Ondarroan 28 itsasontzi zeuden, eta egun, baxurako ontzi bakarra geratzen da; Bermeoko flota 80 itsasontzik osatzen zuten, eta orain alerik ez da geratzen, ezta Mutrikun ere. Orain dela 25 urte, Kantauri itsasoan biberoeekin atunetan jarduten ginen baxurako 400 itsasontzi ginen, eta gaur egun 45 geratzen gara.

# “Bizimodu izateari utzi dio arrantzak”

## Egoitz Dorronsoro eta Iñigo Exposito

*Oriotarren galbaetik* proiektuaren egileak

Egoitz Dorronsorok eta Iñigo Expositok iaz jarri zuten martxan *Oriotarren galbaetik* proiektua, Oriok erraieran gordea duen bizimoduaren inguruko jakintza biltzea helburu. Horretarako, udalaren artxiboa lantzeari zein hainbat herritarren testigantzak jasotzeari ekin zioten.

### DORLETA AGIRIANO

Oriok itsasoarekin izandako harremanetik eraiki du bizimodua, eta besteak beste, arrantza izan du erdigunean. Ondare eta jakintza hori guztia aztertzeke eta ulertzeke lanetan murgildu ziren iaz Dorronsoro eta Exposito, galerari aurre egitea eta transmisioa bermatzea ipar. Elkarrizketa bidez testigantzak biltzen ari dira egun, eta hainbat ondorio atera dituzte dagoeneko.

#### Molako pisua izan du arrantzak herrian?

**Egoitz Dorronsoro:** Orio beti izan da itsasoarekin lotura estua izan duen herria; ontzigintza izan zen erdigunean lehendabizi, eta gero hartu zuen lekukoa arrantzak. Datuek erakusten dute 60-70 hamarkadetan arrantzak herrian zuen garrantzia; 2.000 biztanle inguru izango ziren, eta horietako 300 inguru, arrantzaleak ziren. Gainera, arrantzaren baitako jarduera guztiak kontuan hartuta, herriko biztanleria aktibo ia guztia aritzen zen arrantzari begirako lanetan; olio-ozpintze lanetan, ontzigintzan, mekaniko modura eta abar. Ezaugarri konplexuak dituen sektorea da, eta herri oso bat mugitzen zen horren arabera.

**Iñigo Exposito:** Gelditu egiten zen herria arrantzaleak itsasora irteten zirenean. Haiak itzultzen zirenean, baina, jaiak hartzen zuen Orio. Egun bat edo bi igarotzen zituzten bertan, eta berriz joan bitartean, sekulako jarduna izaten zen herriko kaleetan; alde batetik bestera mugitzen ziren herritarrek; erosketak egiten zituzten, sareak josi eta abar. Arrantzaleek berriro alde egitean, berriz eteten zen. Arrantzaren inguruan mugitzen zen Orioko jardunaren balio-katea. Hemen ez da sekula industriarik izan, eta arrantzarekin lotutakoak izan dira

enpresa guztiak, Orion zein Aian.

**E.D:** Baserri baten modukoa da arrantza, gainera; ez da soilik diru iturri bat, egituratzeko eta antolatzeke modu bat ere bada. Egituraketa horretan, sexu-genero harremanen eta adinaren arabera, rol desberdinak daude, eta antolamendu hori bai pixkanaka galtzen joan dela. Baina garai batean arrantzak egituratzen zuen Orio osoa. Esaterako, gizonak itsasoan egoteak eragin zuen emakumeek ardura gehiago hartu behar izatea; etxean emakume eta gizon izan behar izan dute aldi berean, edota hainbat enpresen buru izan dira. Izan ere, arrantzatzeko ekintza bera gizonak egiten du, baina hori sustengatzeko beharrezkoak diren lan asko eta asko, emakumeek. Kuadrillaka elkartzen ziren arrantzaleen emazteak eta haien seme-alabak, hainbat zaintza lan egiteko. Bestalde, arrantza garaiaren eta harrapatutako arrain motaren arabera, guztiz aldatzen ziren herrian egin beharreko lanak. Arrantzak baldintzatzen zuen erritmo hori guztia.

**I. E:** Bizitzeko modu bat izan da arrantza, eta denborarekin, bizimodu izateari utzi dio.

#### **Beraz, gaur egun arrantzak ez du herriaren funtzionamendua egituratzen?**

**E. D:** Dekadentzian dago arrantza. 90 hamarkadan Orio inguruan enpresak garatzen hastean eta lehorreko lana erakargarri bihurtzean, erabaki bat hartu zuten oriotarrek: lehorrean askoz hobeto egingo zutela lana. Bi aukera zeuden mahai gainean; itsasora joatea edo lehorrean geratzea. Lehorrean geratzea hautatu zuten, hainbat arrazoi medio; familiarekin egon ahal izatea, arrisku gutxiagori aurre egin behar izatea, edota lana arintzea. Aukera berriak eta hobeak eskaintzen zituen.



Dorronsoro eta Exposito. KARKARA.

Lehen behar bat zen arrantzan aritzea, herritarren behar ekonomiko bat; baina horretaz gain, herrian janaria sartzeko zegoen modu garrantzitsuenetakoa ere bazen. Gaur egun, ordea, ez du funtzio hori betetzen.

**I. E:** Arrantzaren etorkizunari buruz mintzatzean, ikuspegi negatiboa azaldu dute urte luzez horretan aritu diren pertsonak. Herrian ez zaiola segidarik emango uste dute, beraiek mantentzeko saiakera egin duten arren.

**E. D:** Azken 10-15 urtean ez du hainbesteko beherakada izan arrantzak, baina ontzizabeek beren ibilbidea amaitzen dutenean, ez dago lekukoa hartuko duen inor. Gehiago edo gutxiago beti egongo dira langile modura arituko diren arrantzaleak, baina ardura handia da bapora bateko arduraduna izatea, eta ez dago txanda hartu nahi duen inor.

**I. E:** Saregintzan ere jende faltan dabilta, gainera lan kualifikatua da egun. Hor ere ez dago etorkizunik, gero eta gutxiago dira, eta dagoeneko jubilatuta dagoen jendearengana jo behar izaten dute aurrera egin ahal izateko.

**Arrantza erdigunean ez egoteak zein aldaketa eragin ditu herrian?**

**I. E:** Nik uste dut noraezean geratu dela herria. Arrantzaren beherakadak beste sektore batzuetara jo nahi izatea eragin du, baina agian ez da asmatu hori nola egin. Askotan entzuten da *logela-herri* bilakatu dela Orio; jendea hemen bizi da baina jarduera ekonomikoa ez du hemen garatzen, inguruko herrietara mugitzen da.

**E. D:** Bizitzeko era bat izan du Oriok, dagoen tokian kokatuta dagoelako, itsasoarekin lotura handia izan duena. Denborak aurrera egin ahala, bizitzeko modu hori ulertzeko ahaleginik ez du egin inork. Lehen bizimodu hori indarrean zegoen eta modu naturalean bizi zuen jendeak, mundu horren barruan kokatuta zegoelako; baina hori aldatu denean, inork ez du ahaleginik egin lehengo mundua ulertzeko. Gaur egun, beraz, lotura hori ez da ia existitzen. Orion jakintza bat dago galdu egingo dena eta galtzen doana. Herri oso bat eraiki da arrantzaren arabera; horrek hiztegi bat ekarri du, balore batzuk, erritu batzuk, tradizioak, eta mantendu ez dakit, baina behintzat ezagutu eta ulertu egin behar dira.

**Zein da arrantzaren inguruan eraikitako irudia?**

**E. D:** Baserriak nolabait idealizatu eta folklorizatu egin ditugu, eta euskal kulturaren eredu bilakatu. Gure irudikari kolektiboaren parte dira, eta euskaldunen bizimodu gisa aitortu ditugu; esaterako, baserri munduarekin lotutako festak mantendu ditugu, edota baserriko produktu batzuei garrantzia eman. Arrantzarekin ez da hori egin, eta arrantzak berak ez du lortu hori egitea, kostako euskaldunen bizimodua izan den arren. Ez da euskaldunen munduaren zati modura erakutsi.

Bestalde, arrantzaleen inguruan eraiki den irudia arrantzale heroikoarena da; arrantzale gogorra, minik sentitzen ez duena. Uste dut horrek ez diola mesede egin arrantzari. Arrantzaleek ezin izan dute erakutsi beren zaugarritasuna, beren mina, eta horrek ondorioak izan ditu, maila pertsonalean bada ere. Arrantzaleek sufritu egiten dute, eta ez soilik min fisikoa; beren senideak herrian daude

**Nola ikusten duzue zuek arrantzaren etorkizuna?**

**E. D:** Pixkanaka behera egingo du, baina ez da desagertuko, arrainaren eskaria badagoelako. Akaso orain arteko arrantza eredu tradizionala desagertuko da. Bapora asko enpresari handien esku geratuko dira; bapora bat baino gehiago dituzte haiek, eta flota izango balitz bezala kudeatuko dituzte, atun itsasontzi handiekin gertatzen den bezala. Prozesu hori abian da dagoeneko. Egun, armadoreek beren ibilbidea amaitutzat ematean, saldu egiten dituzte baporea eta bertako materiala.

**I. E:** Nik uste dut agian Orion ez ditugula baporeak orain moilan ikusten ditugun bezala ikusiko. Portu jakin batzuetan zentralizatuko da jarduera; izan ere, hori errealitatea da dagoeneko.

**E. D:** Arrantzaren antolaketa berri horrek arrantzatzeko modua bera ere aldatu dezake, gainera.

*edurretegia*  
**ANTILLA**  
*jateketa*

Abeslari kalea, 2 - Tel. 943 83 23 09

**ARISTERRAZU**  
 jatetxea

Andatza auzoa AIA  
 Tel. 943 83 45 21

**arkaitz taberna**  
 orio

- EGUNEKO MENUA
- OGITARTEKOAK
- PINTXOAK
- PLATER KONBINATUAK
- KARTA

*Terraza ederrarekin giro ezin hobea*

abeslari kalea 6 - 943 831 657

KAFETEGI - OKINDEGI - GOZOTEGIA **GELATTO**

**OGI BERRI**

943 578 176  
 Herriko enparantza

**lzozi naturalak Opilak**

**Gabon**  
 TABERNA

- ✓ Pintxoak
- ✓ Plater konbinatuak
- ✓ Ogitartekoak

943 83 06 09

**ETXEKO BEREZITASUNAK**

**ARRAIN ZOPA**

**PARRILA**

**BODEGON SARASUA**  
 ERRETEGIA

Eusko Gudari Kalea, 29-20810 ORIO · Tel.: 943 83 00 05

**niko**  
 taberna

Karta · Pintxo tradizionalak  
 Okindegia

Palota Kalea, 5 · 20810 Orio · Egin erreserba 943 53 61 27

**ASADOR XIXARIO**

Eusko Gudarien Kalea, 2  
 Tel. 943 830 019 - ORIO

**Zaragueta**  
 Herri Eskola *orio*

telefonoa: 943 89 40 52  
 e-mail: 012137aa@hezakuntza.net

**Portu**  
 ERRETEGIA

Santio Erreka Auzoa, zig  
 943 89 44 34  
 20809 AIA-ORIO

*kazolitatek lauseriko oilaskan parrilako errebiak eguneko menua...*

**SU KIA**  
 TABERNA · JATEXEA

On egin eta gero... hartu KOPA eta TOPA!!

- OILASKO ERREAK ERAMATEKO
- EGUNEKO MENUA
- EGUNKARIAK
- OGIA

TF.: 943 892 129  
 ABAROMENDI 38, 1. BAXUA

**kutixi**  
 kafetegia  
 GOSARI GOXOAK

Aritzaga 9, 20810 Orio  
 Tf: 943 13 15 17

**PIZZERIA**

**KALETA**

ARRANTZALE KALEA, 10  
 TELEFONOA: 943 24 89 46

**Carmen eta Txomin**  
 ARRANDEGIAK

943 83 05 37 / 943 83 27 47

**ITZALA**

*kartetan jokatzeko aproposa*

tel. 943 83 12 59

**KOLON TXIKI**  
 edurretegia  
 jatetxea

Herriko Enparantza, 4  
 ORIO  
 Tel. 943 83 00 44





# “Franco artean bizirik, ezin izan zuten Belgikatik etxera itzuli”

**Imanol Mitxelena**

Unibertsitateko irakaslea

Belgikako euskalduna da Mitxelena. Amberesen jaio zen eta bertan bizi da, emazte Kristel Verrelst eta Simon, Tomas, Lander eta Jon semeekin. Irakasle dabil hango unibertsitatean.

**IÑAKI ITURAIN ETA INTZA UNANUE**

Hogei urte daramatza udako oporraldia Orioko kanpinean egiten. Sei hizkuntza hitz egiten ditu. Hondartza ondoan izan dugu solasaldia Imanolekin, euskara hutsez: Orio, Oiartzun, 1936ko gerra zibila, Belgika, bizikleta, Hodei Egiluz, euskal kantak...

**Noiz etorri zinen, aurrenekoz, Orioko kanpinera?**

Umetan urtero Oiartzunera joaten ginen udako oporretan; baina izeba bat Orion egoten zenez, bisitan etortzen nintzen bizikletan.

Hemengo giroa asko gustatu izan zait hasieratik, ez da turista asko ibiltzen, eta nik, Euskal Herrian ez naizenez turista sentitzen, gustuko dut kanpinean dagoen giro herrikoa. Oriok, gainera, dena du; itsasoa, mendia... Emazte Kristel eta lau semeekin hasi nintzen etortzen; orain hemen pasatzen ditugu urtero udako oporrak.

**Zu euskalduna zara, baina Belgikan jaio eta bertan bizi zara. Nola da hori?**

Francoren erruz. Gurasoak Oiartzungo baserritarrak ziren. Aita, gazte gehienak bezala, nazionalista, batzokian ibiltzen zen, euskal giroan... baina ez zegoen politikan oso sartuta. Halere, gerra zibila hasi eta, Francoren tropak 1936ko uztailaren 27an Oiartzunen sartu aurretik, alde egin behar izan zuten. Lau anai joan ziren, etxeko mutil guztiak, Jaizkibetik barrena, Hondarribira. Faxistek 110 pertsona fusilatu zituzten hilerriko horman, tartean aitaren koadrilakoak. Aitak ez balu alde egin izan, bera ere bertan fusilatuko zuketean.

Hondarribian ia bi hilabete egin zituen, lehengusuenean. Handik itsasoz Hendaiara eraman zituzten lau anaiak. Urruñako baserri batean egon ziren bi urtez, gerra amaitu zain. Bukatu zenean, ordea, ezin herrira itzuli. Anaietako bat gerturatu eta kartzelan sartu zuten, eskubide zibil guztiak kenduta. Beste hirurak Landetara joan ziren lanera, basomutil; 1947ra arte egon ziren bertan.

**Ama Oiartzunen geratu al zen?**

Bai, bikotea ziren ordurako. Ama neskame zebilen Arizmendi prokuradorearen jauregian. Haren alaba Maria Teresa Jose Antonio Agirre lehendakariaren anai baten andregai zen, eta amaren egoera berean zegoen: bikote kideak alde egin zuten, Belgikara. Amak ezin izan zuten Frantziara mugitu aitarengana, ez zeukan-eta paperik harako. Arizmendiko alabak, ordea, pasaportea lortu zuten, eta gure ama haren neskamea zenez, harekin joan zen bera ere, Amberesera, 1947an.

Aita atzetik joan zen amarengana, Frantziako lana utzita. Kostata baina baimena lortu zuten bertan geratzeko. Gero ezkondu egin ziren, Donibane Lohitzunen. Ama, aita eta Frantzian bizi ziren aitaren anaiak izan ziren ezkontzan. Hegoaldera ezin ziren-eta etorri. Oiartzunen ere ospatu zen ezkontza, bi familiek, mitxelenatarrek eta iragorritarrek, elizkizuna egin zuten, ezkongairik gabe, ordea.

Ezkondu eta, berriz, Belgikara joan ziren. Han, aita



**1957ko uztailaren 31a. Mitxelena-Iragorri familia Oiartzungo Garmendi baserrian.**

unibertsitateko sukaldean hasi zen lanean; eta ama, oiartzuarraren neskame. Etxera itzuli nahi zuten baina Franco artean bizirik zegoenez, ezin.

**Etxera itzultzeko aukera izan al zuten geroago gurasoek?**

1956an, gerra hasi eta 20 urtera, giroa pixka bat lasaitu zen hemen eta etortzeko aukera izan zuten, bai, baina eskubide zibilak berreskuratu gabe. Hemen ez zuten ez lanik ez etxerik, familia Belgikan sortua zen..., ezin ziren Euskal Herrian geratu. Anai-arreba guztiak Amberesen jaio ginen, baina gu euskaldunak gara. Eskolan flamenkoz ikasi genuen; orain anai-arrebon artean flamenkoz egiten dugu, hango hizkuntzan.

**Nolakoa da Belgikako hizkuntzaren egoera gaur egun?**

Bi hizkuntza nagusi daude han, hegoaldean frantsesa eta iparraldean (Flandrian) flamenkoa (holandesa). Alemanieraz ere hitz egiten da zati txiki batean. Gu flamenkoa hitz egiten den lekuan bizi gara, Amberesen. Nire belaunaldiak frantsesa dominatzen du. Semeen adinekoek, ordea, ez dakite. Gehienek ingelesez hobeto hitz egiten dute.

**Zuk euskara, ingelesa, alemaniera, flamenkoa, frantsesa eta gaztelania hitz egiten dituzu.**

Bai, euskara etxean ikasi genuen, Belgikan; gaztelania Oiartzunen ikasitakoa dakit nik, lehengusuek euskaraz eta erderaz nahastuta egiten zuten eta haiei entzunaz ikasi nuen. Emaztea, berriz, kanpinera etortzen hasi ginenean hasi zen gaztelania ezagutzen. Berak beti dio *castellano de Orio* dakiela.



Kristel Verrelst. Udako oporretan maiz bisitatzen du herriko liburutegia.

“Faxistek 110 pertsona fusilatu zituzten Oiartzungo hilerriko horman. Aitak ez balu alde egin izan, bera ere bertan fusilatuko zuketena.”

“Euskal musika ondo ezagutzen dut. Kantari batzuen disko guztiak ditut”.

#### **HODEI EGILUZEN BILA**

**Orain dela bost urte talde bat joan zen Euskal Herritik Amberesera han galdutako mutil euskaldun baten bila.**

Bai. Tamalez, Galdakaoko mutil gazte bat galdu zen han, Amberesen, Hodei Egiluz, ingeniari-ikasketak eginda, hango enpresa batean lanean ari zena. Susmoa zen norbaitek bota ote zuen hango erriora. Gurasoak han ibili ziren etengabe semearen bila, batetik bestera, kartelak jartzen-eta. Orduan, Orioko batek, Alberto Agirreazaldegik ideia ona izan zuen: talde bat eratu,

Belgikako hiri inportanteetan bizikletan ibiltzeko, hango eta hemengo hedabideetan oihartzuna emateko Hodeiren bilaketari.

**Bizikletan ibili zineten, beraz, batetik bestera.**

Bai, gu han ohituta gaude bizikletan ibiltzen. Ni egunero lanera bizikletan joaten naiz. Bidegorrien sarea oso zabala eta ona da. Gobernuak, gainera, dirua ordaintzen dio lanera bizikletaz joaten denari, kilometroko 15 xentimo. Guk Amberesetik ahal izan genuen laguntza guztia eman genien hemendik joandako euskaldunei. Oriotik hiru lagun joan zineten: zu (Iñaki) eta Alberto eta Pake senar-emazteak. Denetara dozena bat euskaldun. Belgika eta Holandako hiri nagusietan ibili ginen: Amberes, Bruxelles, Gante, Rotterdam, La Haya... Oihartzun handia lortu genuen hedabideetan. Halako batean agertu zen gaztearen gorpua. Oraindik ere harremana badugu Hodeiren gurasoekin. Askok eskertu ziguten laguntza.

**Jaialdi bat ere egin zenuten Amberesen, agintariekin eta hango euskaldunekin. Kristelek aurkeztu eta zuk euskal kantuak abestu zenituen.**

Bai, nik euskal kantu asko dakizkit; Lete, Laboa, Lertxundi eta Larzabalenak (Imanolenak) denak. Oso hunkigarria izan zen ekitaldi hura. Euskaldunen arteko elkartasun-ekintza zoragarria izan zen, Galdakao, Bilbo, Orio eta Belgikako euskaldunen artean. Eredugarria.

**Euskal musikan aditua zarela entzun dugu.**

Aditua ez dakit, baina euskal musika ondo ezagutzen dut. Haurrak ginenean amak disko-jogailu bat oparitu zigun Gabonetan eta Euskal Herritik bost disko bidali zizkiguten. Benito Lertxundirenak ziren bi, bestea, Lete, Laboa eta Imanolena. Orain kantari horien disko guztiak ditut, niri diskoan edukitzea gustatzen zait.

**Ezagutzen dituzun kanta euskaldun guztien artean, ba omen dago zuretzat istorio berezia duen bat.**

Bai, Kristelekin hasi nintzenean kasete bat oparitu nion nire abesti gogokoekin; horien artean Benitoren bat zegoen: *Nere herriko neskatxa maite*. Azaldu nionean kantuak zer zioen, gustatu egin zitzaion. Oso kantu ederra da. Behin Kristelek karta bat bidali zuen Oriora, Benito Lertxundiri zuzenduta. Ez zekienez non bizi zen, helbiderik gabe, baina iritsi zitzaion. Neguan ere etortzen gara Euskal Herrian egun batzuk pasatzera. Horrelakoetan, aukera baldin badugu, Benitoren kontzerturen batera joaten gara. Emazteak kartan idatziz kontzertura gindoazela eta ea kantatuko zuen Nere herriko neskatxa maite. Biontzat zuen esanahia azaldu zion. Eta Benitok, eskaera gogoan hartuta, halaxe egin zuen, aipamen eta guzti. Oso momentu hunkigarria izan zen biontzat.

**Aurten ere Lertxundiren kontzertura etortzekoak zarete?**

Bai, azaroan joango gara Irunera, gogo handiz gaude jada. Niri betidanik asko gustatu izan zait Lertxundi. Gogoan dut ikusi nuen lehenengo aldia, Oiartzunen. Ez Dok Amairun zebilela, zoragarria iruditu zitzaidan.

# Karkara<sup>30</sup>urte

karkara.eus



## Ahaztezina

Pat Cowie

**“Nola saltseatu? Tekla guztietan ikusten nuen KARKARA berria galtzeko arriskua”.**

**R**redakzio-taldean sartu nintzenean, gaur egun baino dinosauoagoa nintzen teknologiarekin. Hasi eta hilabetera aldatu egin genuen aldizkaria maketatzeko programa. *Saltseatu*, esaten zidan Ritxik. Nola saltseatu? Tekla guztietan ikusten nuen-eta KARKARA berria galtzeko arriskua! Garai hartan, nire euskararekiko makulua zen Jabi Zaba lunbagoak jota zegoen, etxean, eta hamaika joan-etorri egin behar izan nuen Santiora, testuak eramateko edo zuzenduta jasotzeko. Baina, aizu, KARKARAn aritu nintzenetik, ez naiz gauza testu bat irakurtzeko begiek akatsetara salto egin gabe. KARKARA inprentara bidali aurretik, gutxienez hiru lagunek irakurtzen genuen arretaz, akats bila, baina, nahiz eta Olatzek eta biok akatsik gabeko alea lortu nahi, behin bakarrik lortu genuen gero Anaren boli gorriko markarik gabekoa! Jakina, ahalegin etengabe horretan, izugarri hobetu zen nire euskara.

Barre ere egiten genuen. Behin, Patxik kasualitatez erratza eskuan zuela, argazkia egin genion; ordenagailuan genuen KARKARako portadan jarri eta Patxiri esan: *Hurrengo portadarako, parekidetasuna!* Hori sustoa hartu zuena! Kostatu zitzaigun txantxetan ari ginela konbentzitzen. Beste behin, Errezeta atalean jarriko genuen txokolatezko moussea ekarri ziguten, probatzeko; ni bulegotik kanpo nintzen eta, bueltan, amorrus entzun nuen Rikardoren aitzakia: *Probatzen hasi eta ezin gelditu!*

Ahaztu ezineko bitxikeriak, lankideak eta urteak!

*eta hamaika bitxikeria*



## *Familian*

Ainara Peña

***"Gogoratzen dut argitaratu aurreko asteburuan bulegoan izaten zen joan-etorria, bakoitzak egindako lanak ekarriz".***

**G**ogoratzen dut, 15-16 urterekin Pat-en ingeles eskolara joaten nintzela Ana Gonzalez de Txabarrirekin besteak beste. Saio baten amaieran proposatu zidan KARKARAn *Herrian galdezka* egiten hastea. Niri ikaragarria iruditu zitzaidan proposamena, eta segituan baiezkoa eman nuen. Patuak ezagutza eta ate asko ireki zizkidan: herria, herriaren antolamendua, herritarrak eta ametsak eraikiz herrigintzan dabiltzanak ezagutzea, euskara errespetatu eta maitatzea, eta azkenik, talde-lanean ikastea. Bakoitzak ondoen egiten genekiena erakusten genion elkarri. Behin afari batean Nere eta biok *Mis* eta *Mister* diplomak banatu genituen, baziren besteak beste *Mis orain dela 25 urte*, *Mister euskaltzaindiaren arabera*, *Mis argazki hau desenfokatuta dago* edota *Mister nik hori egina daukat*. A ze oroitzapenak!

Ardurak handitzen joan ziren, baina talde-lana oso presente egon zen beti, eta babes handia sentitu nuen, KARKARAn familia zen hain zuzen ere. Gogoratzen dut argitaratu aurreko asteburuan bulegoan izaten zen joan-etorria, bakoitzak egindako lanak ekarriz; nola eskaneatzen genituen Anak etxeko laborategitik ekartzen zituen argazkiak igande goizetan. Igande iluntzetan Iñakik azken lanak sartu eta bestelakoak amaitzen laguntzen zigun, Gaboneko ogitartekoa afaltzen genuen bitartean. Eta astelehen goizetan Jabik azken errepassoa ematen zion.

Lagun asko egin nituen bertan, eta denak oroitzen ditut era berezi batean. Hala ere, lerro hauek aprobetxatu nahi ditut batez ere Pati, Patxiri eta bien familiei muxu Potolo bat emateko.

**AZOKA**

**Iragarkietarako txokoa.** Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943 83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com. Merke asko, gainera, doako zerbitzua baita gurea.

**Alokairua**

• Logela alokagai, Etxebizitza berria eta logela handia, ohe handiarekin, mahaiarekin eta armairuarekin. Etxeak 30 metroko terraza du. Tf: 652-55 15 50

• Logela alokatuko nuke Orion. Beste lagunen baten bila ere banabil, elkarrekin etxebizitza bat alokatzeko. Tf: 688-69 03 85

**Lan bila**

• Asteburuetan eta jai egunetan lan egiteko prest. Paperak eta gomendio orriekin. Patricia. Tf: 674-12 32 93

• Ume zaintzan zein etxeko lanak egiteko lan bila dabilen 29 urteko neska euskalduna naiz. Adin desberdinetako haurrekin hezitzaile eta irakasle bezala esperientzia dut. Tf: 638-73 05 44

• Neska bat lan bila. Etxeko lanak, umeen zein adinakoen zaintza,

garbiketa lanak, asteburuetan zein aste tartean; baita orduka ere. Esperientzia eta erreferentziekin. Tf: 661-13 32 95

• Neska euskalduna, haurrak zaintzeko, etxeko garbiketa egiteko eta klase partikularrak emateko. Lehen hezkuntzan graduatua. Umeekin esperientzia handikoa. Tf: 636-31 22 31

• Neska lan bila. Barnezaintzailea, garbiketa lanak eta zaintza. Esperientziaduna, Orion bizi naiz. Marlin Tf: 632-58 23 65

• Ume zaintzan lan egiteko prest dagoen neska oriotarra naiz. Tf: 676-44 13 27

• Emakume gazte bat lan bila. Pertsona helduak eta haurrak zaintzeko prest eta baita garbiketa lanetarako ere. Berehala lanean hasteko moduan. Tf: 642-69 60 38

• Emakume venezuelar bat bere zerbitzuak

eskaintzeko prest. Jende helduarekin ospitalean egoteko prest, egunez eta gauzez. Tf: 688-61 04 52

**Erosgai**

• Land Rover Defenderra erosi nahiko nuke, berdin dio zer egoeratan dagoen: ITVa pasa gabe, kolpeekin, aberiatuta... Tf: 623-17 95 37

**Etxe bila**

• Familia bat gara. Hiru gela dituen etxe baten bila gabiltza. Tf: 661-33 11 13

**Salgai**

• Olaciregi txipironera salgai. Suzuki DFIS motorra. Abendura arte aseguru ordaindua du. 3.500€ Tf: 657-77 45 11

**ITSASOIA**

	ITSASGORA	ITSASBEHERA	ILARGIA
01	06:39 eta 18:50	00:15 eta 12:31	☉
02	07:15 eta 19:35	01:00 eta 13:16	☉
03	08:00 eta 20:22	01:45 eta 14:03	☉
04	08:47 eta 21:12	02:32 eta 14:52	☉
05	09:39 eta 22:09	03:22 eta 15:46	☉
06	10:40 eta 23:20	04:18 eta 16:50	☉
07	11:57 eta ____	05:25 eta 18:09	☉
08	0:46 eta 13:22	06:44 eta 19:33	☉
09	02:08 eta 14:33	08:01 eta 20:42	☉
10	03:09 eta 15:26	09:00 eta 21:33	☉
11	03:55 eta 16:08	09:45 eta 22:13	☉
12	04:31 eta 16:43	10:23 eta 22:47	☉
13	05:04 eta 17:15	10:57 eta 23:19	☉
14	05:33 eta 17:45	11:29 eta 23:50	☉
15	06:02 eta 18:15	12:00 eta ____	☉
16	06:31 eta 18:44	00:20 eta 12:31	☉
17	07:00 eta 19:13	00:51 eta 13:02	☉
18	07:29 eta 19:44	01:22 eta 13:35	☉
19	08:00 eta 20:18	01:54 eta 14:10	☉
20	08:36 eta 20:59	02:31 eta 14:51	☉
21	09:22 eta 21:54	03:15 eta 15:43	☉
22	10:26 eta 23:12	04:12 eta 16:53	☉
23	11:53 eta ____	05:29 eta 18:19	☉
24	00:47 eta 13:22	06:53 eta 19:39	☉
25	02:06 eta 14:31	08:06 eta 20:44	☉
26	03:07 eta 15:27	09:05 eta 21:38	☉
27	03:57 eta 16:16	09:56 eta 22:26	☉
28	04:43 eta 17:02	10:42 eta 23:10	☉
29	05:26 eta 17:46	11:27 eta 23:54	☉
30	06:09 eta 18:29	12:10 eta ____	☉

**ZAINTZAKO BOTIKAK**

IRAILA:

- 31an eta Ilean, Gaminde.
- 2an, Iriarte.
- 3an, Esparza.
- 4an, Gaminde.
- 5ean, Lasa.
- 6an, Iturria.
- 7an eta 8an, Redondo.
- 9an, Lasa.
- 10ean, Esparza.
- 11an, Larrañaga.
- 12an, Redondo.
- 13an, Lasa.
- 14an eta 15ean, Gallo.
- 16an, Lasa.
- 17an, Larrañaga.
- 18an, Esparza.
- 19an, Iriarte.
- 20an, Gallo.
- 21ean eta 22an, Etxeberria.
- 23an, Larrañaga.
- 24an, Lasa.
- 25ean, Etxeberria.
- 26an, Gallo.
- 27an, Redondo.

- 28an eta 29an, Zulaika.
- 30ean, Lasa.

- **Etxeberria:** Gipuzkoa kalea, 17. 943 83 23 98 Zarautz
- **Esparza:** Santuiturri plaza, 5-6 943 50 47 83 Zarautz
- **Gallo:** Zigordia kalea, 17. 943 13 40 19 Zarautz
- **Gaminde:** Gipuzkoa Kalea, 68 943 12 40 19 Zarautz
- **Iriarte:** Zinkunegi, Pilartxo Enea. 943 13 29 83 Zarautz
- **Iturria:** Kale Nagusia, 12. 943 83 29 70 Zarautz
- **Larrañaga:** S. Frantzisko, 16. 943 13 38 14 Zarautz
- **Lasa:** Herriko plaza. 943 83 09 36 Orio
- **Redondo:** Urdaneta kalea, 8. 943 13 31 83 Zarautz
- **Zulaika:** Bizkaia kalea, 41 943 13 39 94 Zarautz



**Zarautz**  
Hileta Zerbitzuak

> Hilerrien kudeaketa  
> Hileta zerbitzu orokorrak  
> Zerbitzu iraunkorra



**Harrespil**  
Hilerri Zerbitzuak



Araba kalea, 35 · ZARAUTZ · Gipuzkoa · Tel.: 943-89 49 37 · Faxe: 943-89 49 41 · e-posta: zarautz@harrespil.net



## Orio

### Hitzaldiak

• Irailaren 18an, asteazkenarekin, *Suizidio bidezko heriotzaren* inguruko hitzaldia. Eva Bilbao eta Agustin Erkiziaren eskutik, Salatxo Aretoan, arratsaldeko 19:00tan hasita. Sarrera doan izango da, aretoa bete arte.

### Hitzorduak

• Irailaren 19an, ostegunarekin, odola emateko hitzordua izango da Orioko anbulatorioan.

### Irteerak

• Irailak 21etik 22ra, eskalada irteera izango da Talai Mendiren eskutik.

### Tailerrak

Mandalara, Arraunetxen:

• Irailak 27, ostirala, 19:00etan

*La musica como cuidadora de las emociones*. Patxi del Campo musikologoaren eskutik.

• Irailak 28, larunbata, 11:00etan *Yoga en familia*. Jesica Morales-ek gidatua.

17:00etan *El secreto de las plantas*.

Gabriel Vazquez idazlearen eskutik.

• Irailak 29, igandea, 11:00etan,

*Aprender por un@ mism@a cuidarse a un@ mism@*. Eneko Landaburu

Doktorearen eskutik. 17:00etan *Taller interactivo de música africana*. Sökole-  
ren eskutik.

## Aia

### Hitzorduak

• Urriaren 22an, asteartearekin odola emateko hitzordua izango da Lardizabal Herri Eskolan.

**LAGUNDU PLASTIKOAK MURRIZTEN**

1- ZUZENEAN OTARREAN SARTU PRODUKTUA

2- BEHAR BADUZU, ESKATU ETA ERAMAN ETXERA GURE POLTSA BERRERABILGARRIAK

3- HURRENGOAN, ETXETIK EKAR DITZAKEZU POLTSAK

GOZATEGI  
FRUTADENDA

BIO

**Orioko Herri Ikastola**

Guraso Kooperatiba

ABESLARI KALEA, 8

TEL: 943 83 47 04

FAX: 943 13 09 38

orio@ikastola.net

www.oriokoikastola.net

**ZINKU ERAIKUNTZAK**

- Igeltserotza orokorra
- Etxebizitzaren erreformak
- Teilatuak
- Sukalde, komunak, etb.
- Eraisketak

deitu eta eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

Ander Zinkunegi  
**667 740 279**

# Karkara

karkara.eus

## **EGIN EZAZU PUBLIZITATEA GUREAN**

*Tel: 943 831 527*

*E-posta: [karkara@karara.com](mailto:karkara@karara.com)*

*688 857 305*